

# puntuua



EUSKAL ESPEDIZIOAREN URTEURRENA

## 40 URTE EUSKALDUNEK EVERESTEKO GAILURRA ZAPALDU ZUTENETIK



+ KOLABORAZIO BEREZIA

**FELIPE URIARTE**  
ESPEDIZIOKO KIDEA



## PUNTUA 236

2020-05-15 EGUBAKOITZA

Azaleke argazkia:  
Euskal Espedizioa.

### Aurkibidea

- 4 **Bat-batean** Haritz Lete
- 6 **Irudiz** Lainoak eta argi-izpiak
- 8 **Mundutik**  
AEB: Zer ari da gertatzen?
- 10 **Erreportajea** Everesteko atea  
erabat zabalik utzi zutenekoa
- 20 **Elkarrizketa** Leire Sangroniz,  
EHUko eta Polymat-eko ikertzailea
- 24 **Osasuna**  
Janari prestatuaren loraldia
- 26 **Kirola** Aconcagua igotzen gazteena
- 28 **Adituen esanetan**  
Elkartanaren garrantzia
- 30 **Otorduan** Maialde jatebrea:  
tradizioa oinarri
- 32 **Moda** Kirol-arropa
- 34 **Motorra** Autoa berriz martxan  
jartzeko gomendioak
- 36 **Gure artistak**  
Nagore Goñi oñatiarra
- 38 **Kultura** Jay Mann, Arrasateko  
Bibliotekako ingelesezko  
solasaldietako gidaria
- 40 **Liburu artean** Xabier Amurizari  
elkarrizketa *Jakin* aldizkariaren 236.  
zenbakian
- 42 **Gure aitxorrak** Debagoiena:  
Martin Carreraren ondarea
- 45 **Gadgetmania**
- 46 **Handitzen, handitzen**  
Jolasa: *kreaizio-gorputza*
- 47 **Jaioberriak**

#### IRITZIA

- 3 **Nire txanda** Maddi Iñarra  
*COVID-1984*
- 16 **Hainbat aburu** Maialen Madariaga  
Mujika *Gatzik bai?*
- 16 **Eztabaida** Bidaiatzeko beste modu  
bat?
- 17 **Xixili** Helena Azkarragaurrez
- 17 **Errematea** Oihan Vitoria  
*Ez itxi begiak, arren*
- 18 **Talaiatik** Josu Urrutia Beristain  
*COVID-19a: aldaketarako aukera*
- 44 **Komunikazioa** Irati Barrena  
Bolinaga *Pantailetatik*

## puntua

goiena<sup>“</sup>  
KOMUNIKAZIO TALDEA

TOKIKOM

**Argitaratzailea**  
Goiena Komunikazio Taldea  
Kooperatiba Elkartea  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

**Lehendakaria**  
Aitor Izagirre  
**Zuzendari nagusia**  
Iban Arantzabal  
**Zuzendaria**  
Eneko Azkarate  
**Erredaktore burua**  
Monika Belastegi  
**Diseinu arduraduna**  
Iñaki Iturbe

**Hizkuntza arduraduna**  
Sergio Azkarate  
**Publizitate arduraduna**  
Mireia Larrañaga  
**Kluba eta banaketa**  
Igone Osinaga  
**Maketazioa**  
Imanol Soriano,  
Aitor Lagoma  
Amaia Martinez de Arenaza,  
Maite Igartua  
**Publizitatea**  
Mireia Larrañaga, Ziortza  
Martin, Amaia Mundiñano

**Administrazioa**  
Agurtzane Gaintzarain,  
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
132 posta-kubxa  
Tel.: 943 25 05 05  
berriak@goiena.eus

**PUBLIZITATEA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
publi@goiena.eus

**HARPIDETZA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
harpidetza@goiena.eus

**Lege Gordailua:**  
SS-1509-2014  
**ISSN:** 2443-9738  
**Tirada:** 4.100 ale

**Inprimategia:**  
Gertu Komunikaziobide SL

PUNTUAK ez du bere gain  
hartzten aldizkari honetako  
orrialdeetan kolaboratzaileek  
adierazitako iritzien  
erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

# COVID-1984



MADDI IÑARRA

**Z**aila izango da honezkero *Black Mirror* telesaileko kapitulu bat diruen irrealitate honi buruz zerbaite berria esatea, baina saiatuko naiz: sentsazioa dut norbaitek *The walking dead* eta *The handmaid's tale* telesailen eta George Orwell-en *1984* eleberriaren gidoiak nahastu dituela.

*The walking dead*-en, birus misteriotsu batek gizateria infektatzen du. Horren eraginez, hiltzen den jendea zonbi bilakatzen da, eta baita zonbi baten hozkada jasaten duena ere. Burua bala, labana edo zerbaitekin zulatu eta garuna hil ezean, zonbia *ad infinitum* ibiliko da haragi fresko bila. Testuinguru post-apokaliptiko horretan, ezagutzen genuen gizartea eta mundua desagertu egiten dira eta biziraupenean, zombien aurkako borrokan eta beste gizatalde batzuekiko lankidetzara edo aurkaritza harremanetan oinarrituriko *normalitate berri* bat agertzen da.

*The handmaid's tale*-n, Ameriketako Estatu Batuetako presidentea eta Kongresuaren gehiengo erail ostean, balio puritanoen oinarrituriko erregimen teokratikoa ezartzen da estatuan. Diktadura fundamentalista ezarri den etorkizun distopiko horretan kontrol soziala erabatekoa da eta pertsona bakoitzak gizartean betetzea tokatu zaion paperaren arabera jokatu beharko du, bai ala bai. Arauen aplikazio malguagoaz disfrutatzen duten eliteek salbu, Gileadeko Errepublika totalitario berri horretako pertsona bakoitzak dagozkion *baimendutako zereginak* –binaka erosketak egitera joatea, adibidez– bakarrik egin ahal izango ditu, erabateko kontrol polizial eta sozialaren begiradapean eta arauak hautsiz gero jendaurrean urkatua izateko arriskupean.

*1984* eleberriak bere burua zelatatzen duen gizartea irudikatzen du, intimitatea eta pentsamendu librea debekatuta dauden sistema bat. Alderdi politikoko bakarrak –dena ikusten duen *Big Brother*-a– biztanle guztiak behartzen ditu beraien etxe eta bulegoetan pantailak edukitzera, pribatutasun zantzu oro ezabatu arte. Alderdiaren menpeko Pentsamenduaren Poliziak mikrofonoak dituzten pantaila horiek erabiltzen ditu gizabanakoek pentsatu eta esaten dutena kontrolatu eta *pentsamendu krimenak* –Alderdiaren kontsignen aurka doazenak– tortura bidez zigortzeko. Baina Pentsamenduaren Polizia ez da pentsamendu librea jazartzen duen bakarra; pertsona zibilek ere elkar salatzen dute, poliziaren beraren lana eginez.

Fikzioa edo aurreikuspena? ████

**PERTSONA ZIBILEK ERE ELKAR SALATZEN DUTE, POLIZIAREN BERAREN LANA EGINEZ**

# Haritz Lete

---

## TXOMIN MADINA

ARGAZKIA: DAVE BLANCO PHOTOGRAPHY

---

Musikari eibartarra hainbat proiektutako kide da; Cobrarekin *Fyre* diskoa kaleratu berri du, taldearen laugarren lana.

**Aurreko diskoetan topatu ez duen zer topatuko du zaleak Cobraren laugarrenean?** Musikariak berdinak izan eta gure zigilua beti hor egongo den arren, orain arte egin duguna ez errepikatzeko ahalegina egin gura izan dugu. Diskoa egin aurretik, helburu hori jarri genion gure buruari: zerbait berria sartzea, eta musikari moduan ere berritasunak ditugula sentitzea gure barrua motibatuzko. Orain arte esploratu ez ditugun bide batzuk esploratu ditugu.

**Ze abestiz zaude harroen?** Oso zaila egiten zait horri erantzutea, abesti bakoitzak sormen aldetik bere historia duelako: batzuk gehiago kostatzen dira; beste batzuk, aldiz, errazago datoz. Baina denei aurkitzen diet zerbait. Bat aukeratzekotan, *We are next* esango nuke, Cancer Bats taldeko abeslari Liam Cormierrek parte hartzen duelako.

**Abenduan iragarri zenuten udaberriaren diskoa kaleratuko zenutela. Egoera ikusita, pentsatu zenuten atzeratzerik?** Martxoaren 27an kaleratu genuen. Alarma egoera ezarri zenean egon ginen atzeratzekotan, baina ia dena prest geneukan eta aurrera egitea erabaki genuen; bagenekien kontzertuetan ezingo genuela defendatu, baina... Oso pozik gaude izan duen harrerarekin, jendeak modu onean hartu duelako eta jasotako kritikak ere onak izan direlako.

**Zenbat aldatu ditu zuen planak zuzenkorik ezin emateak?** Plangintza bat eginda geneukan, udara begira ere irten ziren jaialdi batzuk eta herriren bateko jaiak... Dena bertan behera utzi beharrak tristatu egiten zaitu, baina hau dena pasatuko den eta abestiak zuzenean joko ditugun itxaropenarekin beti. Diskoaren promozioan zentratu gara, ahalik eta hedapen handiena izan dezan; etxetik ere jo dugu abesti bat.

**Cobran abeslaria, Kokeinen bateria jolea.**

**Bietako bat bakarrik izan ahalko bazina...** Hori

bai ezin didazula galdetu! Ezin dizut bat esan, bietan izugarri gozatzen dudalako. Bateria jotzen hasi nintzen eta beti gustatu izan zait; eta abestea ere, hasi nintzanetik, oso gustuko dut. Oso proiektuan, adibidez, bietan aritu nintzen.


**Musikari lotutako garai edo toki batean bizitzea aukeratu ahal bazenu, zein litzateke hori?** Nire garai musikala 90eko hamarkada da; asko markatu ninduen. Uste dut musikalki gauza oso potenteak egin zirela eta panorama musikala ere asko aldatu zela. Oraindik ere garai hartako talde pila bat mantentzen dira eta zale mordoa dituzte.

**Zinema mundua ere barrutik ezagutzen duzu, soinu nahasle.** Beti gustatu izan zait izugarri soinuaren mundua; horren inguruko ikasketak egin nituen eta hogeitun urte daramatzat lanbidean. Irratian hasi nintzen, eta orain dela 18 urte sartu nintzen egun nagoen estudioan. Betidanik izan da nire pasioetako bat, eta, zorrionez, horretan lan egiteko zortea daukat. Imanol Rayoren *Hil kanpaiak* pelikularen soinu postprodukzioa amaitzen nabil orain; eta oso pozik, uste dudalako lortu dugula zuzendariaren nahia betetzea.

**Musika, zinema... Non geratu da telebista?**

Telebista ez da inoiz ere nire helburuetako bat izan; aurkezle moduan egindako gauzak hala suertatu direlako egin ditut. Suertatzen direnean gogo, motibazio eta denbora baditut, hartu egiten ditut. Egin ditudan lanak oso gustura egin ditut; inguruan jende jatorrarekin, gainera. Ez da ixten dudana ate bat, baina ezta jotzen dudana ere. **Zeinek eroan du konfinamendua hobeto: aitak ala umeak?** Umeak oso ondo eroan du, esango nuke asko gustatu zaiola 24 orduko arreta izatea. Gu ere, orokorrean, ondo moldatu gara, eta txip aldaketa ere azkar egin dugu. Konturatzeke pasatu zaizkigu ia bi hilabeteak.

**Argi duzu motorrean egingo duzun hurrengo bidaia?** Ez. Orain dela gutxi jarri nuen martxan garajea, eta, momentuz, nahikoa dut horrekin. Egia esan, normalean, hemen inguruan ibiltzen naiz, oso urrutira joan gabe. ■■■





# Lainoak eta argi-izpiak

---

**ARGAZKIA:** RICARDO SANTA CRISTINA

**TESTUA:** XABI GOROSTIDI

---

Nahi baino luzeago doa alarma egoera. Ia zazpi astez etxeko pareten artetik irten gabe egon gara –oinarrizko ekintzetarako izan ezik–, eta berriki hasi gara arnas pixka bat hartzen: haurrak kalean, paseatzera irten, kirola aire librean egin... Bizitzen ari garen askatasun pilula horiekin esperantzaren kupela betetzen hasiko ziren asko, baina ez denak. Gaur-gaurkoz, ezin dugu senitartekorik musukatu, ez lagunik besarkatu, ezin gaitezke taberna edo komertzioetara nahieran joan...

Eta galdetuko duzue: txapa honek guztionek zer zerikusi du argazkiarekin? Bada, Ricardo Santa Cristinak izoztutako zerua aurreko guztiaren metafora bat dela. Bizitzen ari garen errealitatearen ispilua. Zeruan argi-izpiak eta lainoak daude; ikusle bakoitzak nahi duen lekuan jarriko du begirada. Auke-raketa kontua. ■■■■





# Zer ari da gertatzen AEBetan?

AEB



**NEREA MAKAZAGA** AEB-ETAN BIZI DEN  
ARRASATEARRA  
ARGAZKIAK: HISPANTV ETA ABCNEWS

Europatik AEBetara hegan egiteko debekuak ezustean harrapatu ninduen Euskal Herrian, eta nire egungo bizitokia den Atlantara ezin itzuli jarraitzen dut. Koronabirusak Ameriketako Estatu Batuetan harrapatu ez banau ere, bertan ditudan lagunei egoeraren berri ematen segitzeko eskatzen diet eta bertako komunikabideek diotena gertutik jarraitzen saiatzen naiz.

Guztiok jakina da une hauetan AEBak munduko lurralderik kaltetuena dela. Hitz hauek idazten ari naizen momentuan kutsatuen zifra 1,3 milioitik gorakoa da eta hildakoena 80.000ren bueltan dago. Ez dirudi, aitzitik, datu hauek epe laburrean hobera egingo dutenik; izan ere, Etxe Zuria hartzen ari den erabakiak eta hauen gogortasunik eza estatuen deskoordinazioa eta sistemaren ahulezia agerian uzten ari dira.

## Twitter bidezko legealdia

Trumpen kudeaketa ikuskizun edo *show* baten osagarri guztiak eskaintzen ari da. Otsailaren amaieran koronabirusa inolako garrantzirik gabeko "gripe txinatar" gisa izendatu zuenetik makina bat titular iritsi zaigu bere asmakizun eta



Donald Trump, AEBetako presidentea.

astakeriekin. Horietao bat izan da orain gutxi botatakoa, lixiba edanez birusa amaitzearena. Eta, nola ez, ehunka jarraitzailek, esandakoari kasu eginez, euren burua intoxikatu dute.

Sarri lehen komunikazio bide gisa Twitter erabiliz ezagutarazten dituen neurri eta lege berriek zalaparta eta eskandalua dakarte ezinbestez gizartean, eta beharrezkoak izaten dira ondorengo egunetako nabardurak ezinegonak baretzeko. Horren

## AEB-AK BIZITZEN ARI DIREN ARAZO NAGUSIETAKO BAT DA OSASUN SISTEMA PUBLIKOAREN FALTA

adibide izan zen emigrazioa guztiz debekatzeko erabakiaren abisua eman zuenekoan, milaka eta milaka mexikar, bertako nekazaritza sektorean lan egiteko mugaz beste aldean zain zirenean. Baina albiste horrek gu ere jarri gintuen ezustean; izan ere, tarte batez, gure bisatuak bueltatzeko balioko zigun edo ez zalantzan jartzera eraman gintuen.

Eta adibideak hamaika izanik, albiste eta polemika izan dira, historian lehenekoz, estimulu fiskal gisa gobernuak esleitutako txeekek Trumpen sinadura eraman izana edota Txinaren aurka igorritako erruak, asiarren kontrako xenofobia edota gorrotoa sustatuz.

## Osasun sistema publikoa falta

Pandemia honen inguruan AEBak bizitzen ari diren arazo nagusietako bat osasun sisteman aurkitzen dugu. Biztanle guztien beharrei erantzuneko dien sistema publiko baten faltan, aseguru pribatuek eskaintzen duten estalduraren menpe dago gizartea.

Aseguru askok ez diete koronabirusa bezalako egoera ezohikoei erantzuten, edota bertan behera gelditzen dira lana galduz gero; izan ere, aseguru gehienak lan kontratuari lotutakoak dira. Osasun sistema negozio bilakatzen den heinean, testek





AEBetako Michigan estatuan egindako manifestazio bat, koronabirusaren aurkakoa.

eta tratamenduek izan dezaketen prezioa merkatuak markatzen du, eta hori ez dago guztien eskura.

Gauzak horrela, osasun kobertura gabezia arazo izan da eta arazo izaten jarraituko du. 30 milioitik gora dira egun inolako aseguruak ez dutenak; tartean, dokumentu gabeko 11 milioitan zenbatzen diren immigranteak. Gaixotasunak gora eta gora egiten jarraitzen badu, sarri gaixotuek atentziorik jaso ez eta gainontzekoak kutsatzen segitzen dutelako gertatzen da.

#### **Estatu bakoitzak berea**

Datuek egoerak hobera egin ez duela dioten arren, bizitokia dudan Georgiako gobernadoreak negozio guztiak irekitzeko ordua dela erabaki zuen orain bi aste luze.

Trumpen jarraitzaile sutsua, ekonomia martxan jarri guran, jatetxeak, gimnasioak eta aisialdirako bestelakoak irekitzera deitu zituen langileak.

Georgiaren bide bera hartu dute Alaskak edota Oklahomak, besteak beste, non kutsatuen eta hildakoen zifrak larriki hazten jarraitzen duen.

Hala ere, malgutasun handiarekin, enpresa handi gehienek koronabirusaren aurkako neurriak seriotasunez hartzen jarraitzen dute baita aipatutako estatu hauetan ere.

### **INKESTA BATEN ARABERA, BIZTANLEEN %28K TRUMPEN BIDEZ JASOTZEN DU EGOERAREN BERRI**

#### **Kanpainaren atarian**

Harrigarria badirudi ere, AP agenziaren inkesta batek dioenaren arabera, estatubatuarren %28rentzat Trump da pandemiaren inguruko berriak jakiteko iturri nagusia, eta esandakoaren sinesgarritasuna orientazio ideologikoaren baitan aurkitzen da. Trumpek emandako informazioan demokraten %7k baino ez du "konfiantza handia edo nahikoa", baina errepublikanoen artean zifra hori %47koa da.

Azaldutakoak azalduta, ezin daiteke albo batera utzi Ameriketako Estatu Batuetako presidentetzarako kanpaina udazkenaren atarian daukagula, eta Trump eta bere Administrazioa beharrezkoa dena egiteko prest izango ditugula. ■

# Everesteko atea erabat zabalik utzi zutenekoa

Atzo, maiatzak 14, 40 urte bete ziren Euskal Espedizioa Everesteko Txomolungmako gailurrera iritsi zela. Oñatin bizi den Felipe Uriarte pasaitarra izan zen espedizioaren kideetako bat, eta urteurren honetan, PUNTUArekin batera denboran atzera egin eta garaiko oroitzapenak eta analisiak ekarri ditu.

Testua: **Uxue Igarza Loiola**.  
Argazkiak: **Felipe Uriarte eta elkarrizketatuek bidalitakoak**.

Argazki handietan: Luis Mari Olazagoitia "Petxu" eta Joxe Urbieta "Takolo" Euskal Espedizioako kideak.

Argazki txikietan: 1980an Everestean ateratako argazki sortako irudiak.

**F**elipe Uriarte Euskal Espedizioako kidea izan zen, eta berarentzat berezia da Everesteko gailurra zapaldu zueneko urteurrena, baina mendizalearentzat ez dira 40 urte igaro; 46 urte igaro dira. Euskaldunek 1974an Tximist Espedizioarekin hasi baitzuten harremana munduko mendirik altuenarekin. Oñatin bizi den pasaitarrak azaldu duenez, 1980ko maiatzaren 14ko gertaera bide luze baten amaiera da, baina baita zerbaiten hasiera ere: "Himalaiako ateari bultza egin eta erdi irekita utzi genuen".

Dena den, argi utzi nahi izan du ez zirela 8.000ko bat egin zuten lehen euskaldunak izan. 1979an, Nafar Espedizioa Daulaghiri gailurrera iritsi zen; Gerardo Plazak, Xabier Garaioak, Iñaki Aldaiak, Ang Rita Xerpak eta Jordi Pons katalanak lortu zuten euskal mendizaletasunaren lehenengo 8.000koa. Ondoren, 1980ko maiatzaren 14an, Euskal Espedizioako Martin Zabaletak eta Pasang Tenba xerpak Himalaiako atea "guztiz zabalik" utzi zuten euskal mendigoizaleentzat. Une hartan euskal mendizaletasuna eta naziogintza uztartu egin zirela azaldu du Euskal Espedizioako kide izan zen Uriartek.

Geroztik hona, euskaldunek Himalaian ibilbide oparoa egin dute. "8.000 metroko gailur guztietan zutik jarri dugu euskal ikurrina", esan du Uriartek. Hiru dira 14 zortzimilakoak igo dituzten euskaldunak –Alberto Iñurrategi, Edurne Pasaban eta Juanito Oiarzabal– eta bidea, oro har, ez da samurra izan, Uriarteren ustez. Tamalez, bidean lagun asko gelditu direla azaldu du



## "Bultzada eman zigun gazte mendizaleoi"

**DAMASO GALLASTEGI** MENDIZALEA

Damaso Gallastegik ondo gogoratzen du Felipe Uriarte eta Euskal Espedizioko gainerako kideek Everestera egin zuten bigarren bidaia. Txomolungmako gailurrera iristek garaiko mendizale gazteengan "ikaragarritzko eragina" izan zuela azaldu du. Lehendik ere hedatuta zegoen pasioa are gehiago errotzeko balio izan zuela argitu du. Bestetik, herritarrek egin zuten jarraipena ere itzela izan zen, Gallastegiren arabera.

**Nola bizi izan zenuten bailarako mendizaleek 1980ko gertaera?**



D.G.

Zalantzarik gabe, intentsitate handiz bizi izan genuen. Emozio nagusiak zeintzuk izan ziren galdetuz gero, poza, ohorea eta harrotasuna izan zirela esango nuke. Herrietako txoko guztiak –plazak, kaleak eta zineak– bete genituen eta

luzaroan ez zen gure artean beste gairik egon.

**Gazteen artean mendizaletasuna sustatzeko ere balio izan zuen horrek?**

Bai, erabat. Mendizaletasuna euskaldunen artean –eta baita bailaran ere bai– lehendik ere errotua zegoen, baina gertaerak beste bultzada bat eman zion gaiari. Euskaldun batek bere oinak eta ikurrina munduko gailurrik gorenenean, munduaren sabaian jarri izateak areagotu egin zuen mendiarekiko zaletasuna. Lorpen hark erabateko bultzada eman zigun garaiko gazte euskaldunoi; mendiari jarraitzeko eta mundu horretan murgiltzeko grina are gehiago piztu zigun.

# Nazioaren itxaropenak elikatuz



FELIPE URIARTE EUSKAL ESPEDIZIOKO KIDEA

*Bizitzaren higadura lausotzaile saihestezinaren betaurrekoekin gogoratzen dut hura. Esaera ez da nirea; Harkaitz Canorena da. Canok hain zehatz eta ongi esanda, ni ez naiz hasiko besterik asmatzen. Bestetik, *agian ametsak dira ene oroitzapenak* ere esan dezake Sarrionandiak. Balio dezatela gure bi idazle handien hausnarketa horiek sarrera eta aldarrikapen bezala.*

Gaur egun, mundu osoan ezagutzen gaituzte euskal mendizaleak, eta jakin badakite planetaren Pirinioetako aldean badela herri bat, komunitate bat, nazio bat, txikia izanda ere, mendizale zintzo, trebe eta eskuzabalez beteta dagoena. Harrotasunez esan dezakegu mendigoizaleok 46 urte hauetan gure lana ongi egin dugula; naziogintzan aritu gara.

## Bidea eginez

Everesteko gailurrera iritsi orduko, esan bezala, aurrekari garrantzitsuak izan genituen euskaldunon artean. 1967an, Peruko Cordillera Blancara joan zen lehenengo Euskal Espedizioa. Helburua 5.987 metro dituen Atunrrajura igotzea zen –Andeetako mendirik altuena–, eta lortu zuten. Gainera, Ayunkurraju (5.647) eta Uchurraju (5.450) ere igo

**"HARROTASUNEZ ESAN DEZAKEGU 46 URTE HAUETAN ONDO EGIN DUGULA GURE LANA"**

zituzten. Espedizio hartako irudietan ikurrina agertu zen, eta Angel Landak Basauriko kartzelan astebete egin behar izan zuen; ez baitzen legala. Espetxetik irten ostean, 1967ko Bizkaiko Kirolari Onenaren Saria eman nahi izan zion Federazioak, baina Landak saria gaitzetsi zuen.

Andeetako taldea izan zen Tximist espedizioa antolatua zuena. Finantzaketa lortzea espedizio konturik errazena izan zen. Juan Zelaia oñatiarrarekin topo egin genuen. Zelaia euskal abertzalea zen; naziogintzan aritzen zen enpresaburua. Ondo kudeatzen zituen marketin kontuak, eta bere pilak Everestera bidaltzea kanpaina ona zela pentsatu zuen. Bestetik, abertzaletasunaren ikuspuntutik, garrantzitsua iruditu zitzaion garai haietan debekatuta zegoen euskal ikurrina Txomolungmaren gailurrera igotzea. Francoren azken urteak ziren, eta, jakina den bezala, ez zen garai samurra. Marketina, naziogintza eta mendizaletasuna batu ziren espedizioak aurrera egin zezan.

Garai haietan ez geneukan Whatsappik edo Skyperik, eta autoa hartu eta Txomin Uriartek eta biok bidaia luzeari ekin genion. Bidea bera oso aberasgarria izan zen, noski. Mendizaletasunak barne bidaiak eskaintzen ditu, eta 1974 urrun hartarako itzuli geografiko itzela izan zen. Lehenengo momentutik liluratu ninduen

xerpa komunitateak: mendi erraldoipean bizitzeko modua, haien jatorrasuna, indarra, kultura, hizkuntza... Etxera itzuli nintzenean ulertu nuen ni ere xerpa bat nintzela; nire mendiak nituela; nire kultura eta hizkuntza propioa. Orduan ulertu nuen euskalduna izatea zer den.

Nire uste apalean, 1974ko Tximist espedizioan lan handia egin genuen. Orduan, ez genekien ezer Himalaiari buruz, eta lana lepo egin behar izan genuen: elikadura, materiala, antolaketa, altuerarako egokitze lanak... Dena zen berria, baina, bikain jardun ostean, maiatz hasieran, hego-lepoko 8.000 metrorainoko bidea genuen prest. Inolako istripurik eta arazorik gabe, maiatzaren 12an, Angel Rosen eta biok 8.600 metrora egin genuen lo. Maiatzaren 13an joan behar genuen gailurrera; lana ondo eta garaiz egin genuen hortaz.

Halere, eguraldia funtsezkoa izaten da mendi-gailur horietara ailegatzeko. Garai haietan, eguraldi-iragarpenak hutsaren hurrengoak ziren, eta gora jotzen genuen, eguraldia nolakoa izango zen jakin gabe. Maiatzaren 12an, 8.600 metrora iritsi ginenean, eguraldi polita zegoen, baina, tamalez, gauean eguraldia izorratzen joan zen. Egunsentian, ez zen giro: haize

**"ETXERA ITZULI NINTZENEAN ULERTU NUEN NI ERE XERPA BAT NINTZELA"**

bortitza zegoen eta elurra ari zuen. Horrenbestez, gorako bidea itxita, behera egin behar izan genuen. Dena den, saiakera gehiago ere egin genituen; gogotik saiatu ginen. Rikardo Gallardok hiru egun egin zituen hego-lepoan, ea xerpa eta kiderik etortzen ote zen gora jotzeko, baina eguraldiak ez zigun ezer gehiago egiten utzi.

### Gizartearengan eragina

8.000koak lortzea herri mailako ahalegina izaten zen, eta nazio eta estatu aberats guztiek nahi izaten zuten euren ikurrina Everesteko gailurrean jarri. Gutxi ziren, ordea, 1980an hori lortuta zutenak: zazpi herrialde soilik. Ikurrina Txomolungmaren gailurrean ipintzeak, beraz, Euskal Herria munduko estatu handien ondoan kokatzea eragin zuen; politikoki, herria sortu genuela esan daiteke.

Testuinguruari dagokionez, 80an frankismotik gentozen, frankismotik neofrankismorako trantsizioan geundela esango nuke, baina gizartea itxaropentsu zegoen orduan; guztia geureganatzeko itxaropena genuen: burujabetza, hizkuntza, kultura... Dena eskura zegoela zirudien. Txomolungma gailurrean ordura arte debekatuta zegoen ikurrina

**"NAZIO ZAPALDU ETA GARAITUAREN ITXAROPENAK ELIKATU ZITUEN LORPENAK"**



Felipe Uriarte, 1978an.

ikusteak herriaren itxaropena piztu zuen. 1980ko lorpenak nazio zapalduaren itxaropenak elikatu zituela uste dut, eta herria eskertuta zegoen.

Handik itzuli ginenean, besoak zabalik hartu gintuzten hemen; herriz herri ibili ginen jendearen eskerrak jasotzen. Oso garai ederra izan zen; gazteak ginen, indartsu geunden, maitatuak ginen eta mendigoizaleak ginen. Geroztik, ni zorretan sentitu izan naiz herriarekin, eta ordutik hona zorra kitatzen ahalegindu naiz.

### Egungo egoera

Hausnarketa interesgarriak sortzen ditu egun Himalaian gertatzen ari dena ikusteak.

Nepalgo Gobernuak mendizaletasuna mugatzen duela dio hainbatek, eta neurriek Txomolungma ingurua garestituko dutela ere bai. Txomolungma Nepalgo Estatuko lurraldean dago, eta, hortaz, nire iritzia argia da: beraiena da, eta egin dezatela nahi dutena. Interesgarriagoa iruditzen zait arreta beste gune batera zuzentzea; adibidez, Everestera joaten direnengana. 1982an, 14 zortzimilako norgehiagoka

hasi zen. Horren eraginez, taldeko ahaleginak albo batera utzi, eta norbanakoen ahaleginak hasi ziren erdigunean jartzen –helburu pertsonalak lortzeko–. Egun, norgehiagokaren etapa bukatutzat eman daiteke, baina bide beretik jarraitzen du jendeak. Pertsona asko pilatzen da 8.000koetan, eta gailurrera igotzen direnen ehuneko handia bere irudi profesionala sustatzeko joaten da; lorpena curriculumean gera dadin, hain zuzen ere.

Nire ustez, Txomolungmara igotzeko gai izateak, besteak beste, baldintza zailtan erabaki zuzenak hartzea dakar berekin, eta baita pertsona fidagarria izatea eta gauzak zailtzen direnean ondo erantzuteko gai izatea. Baina hori orain ez da horrela izaten; garai honetan ez dira gaitasun horiek behar. Iaz gailurrean izan ziren 300 mendebaldrak ez zuten inolako erabakirik hartu: erabakiak eta lana beste 300 mendizale xerpek hartu zituzten.

Laburbilduz, gaur egun Txomolungma mendian gertatzen den guztia neoliberalismo politiko eta finantzarioaren eraginpean kokatzen dut; neoliberalismoak dena kutsatzen baitu, baita Everest ere.

**"GAUR EGUN, IRUDI PROFESIONALA SUSTATZEKO JOATEN DIRA ASKO"**



## "Sekulako espektatibak genituen denok"

**JOXE ARANZABAL** KAZETARIA

Joxe Aranzabal kazetari, historialari eta irakasle arrasatearrak ezin hobeto gordetzen du buruan euskal espedizioaren lorpena.

### **Gogoratzen duzu gertaeraren berri izan zenuen unea?**

Jakina. Orduan Eskola Politeknikoan nengoela gogoratzen dut. Guk egun batzuko geroago izan genuen gertaeraren berri, garai hartan ez baitzegoen egun dagoen teknologiarik, eta informazioa beranduago iritsi zen hona. Egia esan, sekulako espektatibak genituen denok, euskaldunen bigarren



J.A.

ahalegina baitzen. Ikusmira handia zegoen herritarren artean; ea lortzen zuten edo ez jakiteko irrikatan geunden denok. Beste herrialde batzuek halako espedizioak egiten zituzten –baina ia-ia militarrek ziren-. Gogoratzen dut lortu

zutela enteratu ginenean, lau laguneren artean afari-merienda berezia egin genuela garaipena ospatzeko: sagardoa eta marrubiak erosi genituen. Hala da, sekulako poza hartu genuen. Nik horrela gogoratzen dut, behintzat.

### **Nolako jarraipena izan zuen gertaerak komunikabideetan?**

Demaseko jarraipena egin zuten komunikabideek; Loiola Irratiak, batez ere, baina baita *Egin* eta *Deia* egunkariak ere. Euskaldunen artean zaletasun galanta zegoen mendirako eta herrietan pil-pilean zegoen lorpena. Gertaera itzela izan zen euskaldunon autoestimurako, eta komunikabideek jakin zuten horren berri ematen.

## "Garrantzi sinboliko handia izan zuen"

**JERARDO ELORTZA** HISTORIALARIA

Etnografoa, hizkuntzalaria eta historialaria da, besteak beste, Jerardo Elortza, baina baita mendizalea ere. Inguruan oso errotuta izan du mendiarekiko pasioa eta baita euskaltzaletasuna ere. Elortzaren ustez, gizartearengan eragin bikoitza izan zuen lorpenak.

### **Historikoki nolako garrantzia izan zuen gertakariak?**

Lorpen handia izan zen sasoi hartarako, eta oraingo alpinismoarentzako ere bai, jakina. Urrats garrantzitsua izan zen, zalantzarik gabe. Nik hurbiletik jarraitu nuen, lagunak edo ezagunak ziren



J.E.

asko, eta kuadrillan ere enteratuta geunden. Mendian ibiltzeko zaletasun handia eta tradizioa zegoen bailaran; eta oraindik ere mantentzen dela esango nuke. Egia da aurretik ere euskal alpinismoak pauso garrantzitsuak emanda zituela,

Andeetan eta Everesten bertan ere bai, baina 1980koak oihartzun handia izan zuen.

### **Egoera politikoari dagokionez ere aurrerapausoa izan al zen?**

Bai, politikoki garrantzi sinboliko handia izan zuen lorpen hark, ikurrina jarri baitzuten tontorrean. Trantsizio-urte xelebreetan ginen, eta ikurrina legalizatu berri zen. Gainera, urte batzuk aurretik, beste mendizale euskaldun batzuek Andeetan jarri zuten ikurrina eta arazoak izan zituzten; espetxean ere egon zen haietako bat. Esan daiteke kirolaren eta politikaren alderdiek, biek, izan zutela garrantzia espedizioan.

## "Herriaren ordezkari gisa ikusten nituen"

AMAIA ARANZABAL MENDIZALEA

Amaia Aranzabal bergarra 8.000ko bat egin zuen lehen emakume euskalduna da; 1992an, Cho Oyuko (8.201) gailurra zapaldu zuen. Euskal espedizioa Everesteko tontorrera iritsi zenean gaztea zen arren, gertaera pozez bizi izan zuela gogoratzen du Aranzabalek.

### Zein oroitzapen dituzu?

16 urte nituen. Momentua garrantzitsua izan zela gogoratzen dut.

Mendizaleatasuna ez zen beste kirolen modukoa. Beste zerbait izan da beti; gure herriaren izatearekin lotuta egon da. Hori dela eta, lorpen harekin, herria



A.A.

islatu zutela sentitu genuen askok. Herriaren ordezkariak izan ziren; hala ikusten nituen nik.

### Zure mendizaletasunari eragin zion lorpenak?

Ni mendi-inguruan bizi nintzen, eta niretzako mendia gauza

naturala zen. Esango nuke pertsonalki ez zidala bereziki eragin; 16 urterekin ez nituen nire aukerak mendian ikusten. Baina mendiak barrua ukitzen zidan, eta pozez bizi izan nuen. Halere, orokorrean, Euskal Herri mailan, mugak apurtzea eragin zuen, eta ordura arte horrekin amets egiten ez zutenei amesteko aukera eman zien. Ordurako amesten hasiak zirenei, berriz, ametsak errealitate bihurtzeko bidea ireki zien. Garai hartan, dena egiteko zegoen, eta orain, ostera, gauzak asko aldatu dira. Egun, Everestera igotzea norbanakoaren lorpena da, eta, jakina, pozgarria da erronka lortu duenarentzat, baina 1980an, mendizale horiek herria islatu zuten.

### 40 urteren ostean

Azken hamarkadetan, egoera nabarmen aldatu da Himalaian. Bertara gerturatzeko diren mendizaleak asko dira, eta geroz eta ohikoagoak dira tontorrera igotzeko dauden pilaketak. Nepalgo Gobernuak hainbat neurri hartu ditu egoerari irtenbidea emateko eta, batez ere, areagotzen ari diren heriotzak saihesteko. Besteak beste, Everestera igo nahi duten mendizaleek xerpa batekin egin beharko dute bidea, eta medikuak emandako ziurtagiria ere aurkeztu beharko dute. Bestetik, zortzimilakoa egin aurretik, Nepalgo 6.500 metroko mendi bat igo beharko dute, eta 31.500 euro ordaindu beharko dituzte, gutxienez. Iaz erabakitako neurriak dira horiek, eta aurtengo udaberrian dira abian jartzekoak, baina koronabirusaren eragina Everestera ere iritsi da. Nepalgo Gobernuak Himalaiara bidaiatzeko bisen emisioa bertan behera uztea erabaki zuen martxoan, eta Txinak ere isurialdetik dagoen sarbidea berehala itxi zuen.

Halere, azken urteetako aldaketa handiena xerpen komunitateak jasan du. Txomolungma inguruan, mendiko turismoak eragindako garapen ekonomikoa egokia izan dela uste du Uriartek, eta, "zorionez", onurak biztanle guztien artean banatu direla. Baina "komunitatetik kanpo" hartu dituzten erabakiek kultura eta hizkuntza erabat kaltetu dituztela ere uste du. "Gazteek eskolan nepaldarrez ikasten dute, eta xerpera erdi-galduta dakarte". Duela 30 urtera arte hegemonikoa zen xerperak, egun, hizkuntza gutxituen ezaugarriak ditu. ■■■

## "TXOMOLUNGMAKO XERPEI ERAGIN DIE GEHIEN MENDIKO TURISMOAREN ERALDAKETAK"



MAIALEN MADARIAGA MUJIKA

## Gatzik bai?

**E**z dago esan beharrik egunotan bogan dagoen gaia zein den. Ni ere ez naiz gutxiago izango. Eta, gainera, beste guztiak bezala, originala izaten saiatuko naiz.

Gaixotasunaren izena esaten duen bakoitzean itsulapikoan euro bat sartu behar duenik badela badakit. Ni ere sartuko naiz, ba, jokoan. Eta pentsa nire originaltasuna zenbaterainokoa den, medikutara jolastu beharrean, soziologotara joko dut.

Komunitatearen funtzionamenduari jarri diot arreta. Badirudi balkoietara aterata oharitu garela noren ondoan bizi garen, nola dauden, noiz betetzen dituzten urteak auzokoek. Denbora ere eskaini diegu behar bezalako urtebetetze jaia izan dezaten. Zaharrenei erosketak egiteko

prest azaldu gara. Ez al da hori komunitateari ateak irekitzea?

Komunitatea dira, bizilagun jatorrak, zaratatsuak, igogailurik gabe etxetik irten ezin dutenak, eta haurrak eta txakurrak dituztenak. Izenez agurtzen ditugun etxepeko okinak eta dendariak. Egunerokoan espazio berean mugitzen garenak, elkarbizitzen edo elkarren ondoan bizitzen.

Aurrez diseinatu eta araututako etxebizitzetan bizi diren zortedunekin alderatuta, atari arrunt batean komunitate

bat sortzeak zailtasun gehigarriak dauzka. Anitzak dira orokorrean, eta askotan, hipotekak soilik batzen ditu. Estatus ekonomikoak ere bai sarri.

Azken asteotan, egoerak behartu egin gaitu elkartzera, edo sozializazio beharrak eraman gaitu elkar ezagutzera. Pentsa, berriz ere auzokoengana gatz eske joango garen sentipena daukat. Ez gaitzala, behintzat, egunerokotasun berriak lehengora itzularazi. Jarrai dezagun ondokoen balkoietara begiratzen. Denbora hartzen.

Ez dakit inori pentsamenduren bat eragingo dion, originala izan ote naizen. Niri, zuei bezala, pentsatzeko denbora gehiegi eskaini didate azken hilabeteen. Tira, euro bat aurreztu dut, behintzat. ■■■

**BADIRUDI  
BALKOIETARA ATERATA  
OHARTU GARELA  
NOREN ONDOAN BIZI  
GAREN, NOLA DAUDEN...**

## EZTABAIDA

### Bidaiatzeko beste modu bat?

Orain arte bezala bidaiatzea ezinezkoa izango da denbora tarte batean. Hegaldiak garestitu eta distantzia mantentzeko protokolo zorrotzak ezarriko eiz dituzte aurrerantzean.



MAITE CABALLERO  
BIDAIA AGENTZIA

"Gaur egun neurri normalak iruditzen zaizkigunak krisi egoera batetik atera ziren: zapatak erantzi, likidoak bereizi, bisa elektronikoak... Sektorea mugitzen ari da, testuinguru berrietara egokitzeko eta bidaiariari segurtasun neurri gorenak eskaintzeko asmoz".



MIKEL ZUMALDE  
GAZTEA

"Azkenaldian, gure ahalmenen gainetik bizitzen ari ginen, eta hegazkina jendez lepo berriz ikusteko urteak pasa beharko dira; ondorioz, beste modu batera bidaiatzera behartuta izango gara. Ea pandemia honen ostean gauzak beste modu batera egingen ditugun".

## XIXILI

HELENA AZKARRAGAURIZAR



## ERREMATEA



OIHAN VITORIA

Ez itxi begiak,  
arren

**B**egiak ireki dizkigu konfinamenduak. Egoera berrietara egokitzeko gaitasuna erakutsi dugu. Sukaldea hankaz gora jartzeko eta 50 metro karratuko etxeetan kirola egiteko abilezia dugula ohartu gara. Ikusezinak eta bigarren mailakoak ziruditen sektore prekarizatu eta feminizatuak gizartea sostengatzeko ezinbestekoak direla jabetu gara, osasun sistema publikotik hasita.

Kontsumo mugagabeen oinarritutako eredu aseezin, berekoi eta basatiari arrakalak aurkitu dizkiogu. Eta kapitala lehenesten duten politika neoliberalen fruituak zein mikatzak izan daitezkeen nozitu dugu. Zaurgarriak garela konturatu gara. Eta, hala ere, daukagun apurrari zukua ateratzen eta momentu zailetan gertukoen babesa zein beharrezkoa den baloratzen ikasi dugu itxialdian.

Bide telematikoek urruti eta baztertuak genituen lagunak gerturatu dizkigute, eta begiak itxi ditugu behar genuen etenaldia egiteko. Arnasa hartzeko. Hausnartzeko. Errealitateari neurria hartzeko. Balia ditzagun etxe barruan barneratutako ikasgaiak etxetik kanpo –terrazetan ere– praktikara eramateko. Ez gaitzala itsutu lehen (des)fase murriztura pasatzeko *zirrarak*. Berriro hutsetik hasi nahi ez badugu, behintzat. ■

ESTHER GUILLAUMES  
BIDAIA AGENTZIA

"COVID-19ak eragindako krisia ez da lehena eta ez da azkena izango gure sektorearentzat. Golkoko Gerra, irailaren 11ko atentatua, sumendien erupzioa eta ezbehar zerrenda luzearen ostean, turismo-industriak krisi-egoerak kudeatzen jakin du eta indartuago atera da".

MADDI GURIDI  
HERRITARRA

"Orain arte, posible genuen munduko beste puntara bidaiatzea prezio nahiko merke baten trukean. Seguritasun neurriak hasieran errespetatu egingo dira, baina gaitza kontrolpean dagoenenean ez dakit ez ote garen berriz ere lehengo eredura bueltatuko".

# COVID-19a: aldaketarako aukera



JOSU URRUTIA BERISTAIN EKONOMIALARIA ETA MUNDUKIDE FUNDAZIOAREN ZUZENDARIA

**K**onfinamendu-arintzea hastearrekin batera, azken egun hauetan telebistako albistegieta mezu eta istorio baikorrek ugaritu dira. Gure gizartearen alde baikor eta gizatiarrena erakutsi nahi izan digute. Hala ere, krisi honetan, bakoitza den modukoa dela ikusi dugula uste dut; are eta nabarmenago, alegia. Alde batetik, bai, ikusi dugu osasun arloko kolektiboa herorien moduan lanean bizitzak salbatzen, haien bizitzak arriskuan jarrita. Era berean, behar gehien dutenei laguntzeko gure herri eta auzoetan boluntario sarea antolatua ikusi ditugu, jende nagusiari erosketak egiten, ezer ez duten familiei jatekoa eramaten, telefonoz hitz egiten bakarrik daudenekin, edo maskarak egin eta banatzeko lanetan. Beste aldetik, baina, ikusi ditugu Aste Santuan edo asteburuetan eguraldi ona aprobetxatu eta oporretan joan nahi izan dutenak; gehiegikeria polizialak; gure herrietako eta auzoetako dendak itxita dauden bitartean Amazonen bitartez erosten egon direnak; balkoietako zelatarriak; eta baita osasun materialarekin espekulatzen ibili direnak eta, gainera, akastun

materialak ere bidali dituztenak, osasun langileak kutsatuz.

Antzeko zerbait gertatzen da munduko azken krisien ondorioak erreparatzen baditugu ere. Horrela, 1918an, gripe epidemiaren ostean, Europako herri askotan osasun sistema publikoak sortu ziren. 1929ko porrotaren eta II. Mundu Gerraren ondorioz, gaur egungo ongizate-estatuaren oinarriak jarri ziren. Hala ere, 2008ko krisi finantzarioaren ondorioa herrialde gehienetan gertatu den prekaritate eta ezberdintasun igoera izugarria izan da; horrela, munduko aberastasun gehiena gutxi batzuen esku geratu da.

**Horregatik, orain**, pandemia osteko gizartea zelakoa den aurrekusten ari garela, hausnarketa hauek zuekin konpartitu nahi ditut.

Lehenengo aldatu behar duguna helburua da. Ezin dugu bizi gehiago edukitzeko. Urtero gehiago irabazteko eta gutxiago ordaintzeko. Halaber, ezin dira enpresen emaitzak izugarri hazi eta zerga gutxiago ordaindu. Alternatiba hobeto bizitzea izan daiteke. Batzuetan, horrek urte gehiago bizitzea esan nahiko du. Kontuan hartu behar dugu Sahara

azpiko Afrikako hainbat herritan bizi itxaropena 50 urtekoa dela; gurea baino 30 urte gutxiagokoa, hain zuzen ere. Baina beste kasu batzuetan, gurean, ezberdin bizitzea esan nahiko du. Era jasangarriagoan, natura errespetatuz eta ez bakarrik guran pentsatuz. Eta horrek nahitaz ekarriko du gutxiago kontsumitzea eta gutxiago bidaiatzea. Helburu berri honetarako, BPGa ezin da izan adierazlea. Horren alternatiba moduan, munduko zorientasunaren txostena bururatzeko zait, arlo ezberdinak aztertzen dituenak; tartean, askatasuna, osasuna, ustelkeria... edo, behintzat, Giza Garapen Indizea; gutxienez, bizi itxaropena, hezkuntza maila kontuan hartzen dituen BPGarekin batera.

**Hobeto bizitzeak** inor atzean ez uztea esan nahi du. Garapen Jasangarriaren Helburuen leloak dioten moduan. Eta horrek esan nahi du ez apartatzea gure nagusiak zahar etxeetan, gure ume txikiak haurtzaindegietan eta gure gazteak eskola eta ikastolan, gu helduok ekoiztera joan ahal izateko. Horrek esan nahi du zaintzen lehentasuna berreskuratu behar dugula, gure gizarte berriaren oinarria izateko. Inor atzean



ez uzteak eredia aldatu behar dugula esan nahi du, biolentzia eta jazarpenengatik munduan 50 miloi pertsonak bere etxetik alde egin behar ez izateko. Baina baita ere esan nahi du ezin dugula onartu munduan 800 miloi pertsona gose izatea, eta urtero goseak bi miloi pertsona baino gehiago hiltzea.

Gizarte berriaren oinarria giza eskubideak izan behar dira. Krisi hauetan beldurragatik ahaztuta egon diren eskubideak. Lehentasuna, beraz, eskubideen nagusitasuna berreskuratzea izan behar da; era horretan, hurrengo krisialdian eskubide horiek ez dituzte murriztuko gutxieneko berme juridikoak errespetatu barik.

**Eraiki behar** dugun gizarte berriaren protagonista emakumea izan behar da. Nabari geratu da osasun krisia ondoen kudeatu duten herrialdeen agintariak emakumezkoak direla. Orduan, zergatik hain emakume gutxi herrialdeen goi agintari? Zergatik hain gutxi enpresen eta kooperatiben agintean? Guztion lana da aldaketa hau sustatzea gizartearen beraren onurarako.

Bizitza berri hau zientzialariek pandemia

garaian aurrerapausoak eta ikerketak elkar banatzeko erabilitako ereduari jarraituz eratu beharko genuke, eta ez politikarien eredia erabilia. Eta ez naiz Bolsonaro edo Trumpi buruz bakarrik ari. Gertuago ere, liskarrak ikusi ditugu agintea nork hartu behar duen erabakitzeke, pandemiari aurre egiteko eta konfinamendu-arintzea antolatzeke eredia dela eta. Hots, ezintasuna nabaria izan da elkarrekin erabakitzeke, eta, ondorioz, herri bakoitzak eredu ezberdina ezarri izan du.

**Garai berriko** enpresa eredia ez dugu asmatu behar. Gehien daukanak agintzen duen ereduaren aurrean, kooperatibak aberastasuna era zuzenean banatzeko eredia eskaintzen du. Non pertsona bakoitzak boto bat duen, non elkartasuna, ekitatea, berdintasuna, demokrazia, autoardura eta autolaguntza diren balio nagusiak. Eta non komunitatearekiko konpromisoa oinarri bat den hasierako Rochdale aitzindarien garaitik. Arizmendiarrietak esan zuen moduan, erronka orain mundu mailako elkartasunezko erregimen kooperatiboa lortzea da.

Mundukiden horretan jardungo dugu. ■■■

## **OSASUN KRISIA ONDOEN KUDEATU DUTEN AGINTARIAK EMAKUMEZKOAK DIRA**

# "Zientzialarion erronka kontzeptuak modu sinplean azaltzea da"

**LEIRE SANGRONIZ** EHU-KO ETA POLYMAT-EKO IKERTZAILEA

Dibulgazio-artikulu onenaren CAF-Elhuyar Saria eskuratu du Leire Sangroniz kimikan doktoreak. Izan ere, bere doktore-tesian oinarritutako artikulua izan da saritua. Bertan, polimero birziklatu aurreratuen garapenaren inguruan plastiko-hondakinei bizitza berri bat ematearen gaia landu du zientzialari elgetarrak. Testua eta argazkiak: **Josu Bilbao**.

**L**eire Sangroniz Agudo kimikari elgetarrak eskuratu berri du CAF-Elhuyar dibulgazio-artikulu onenaren saria. Zientzia eta teknologia gizarteratzeko lanak eta egitasmoak aitortzea da sariketaren helburua, eta EHUko eta POLYMATeko ikertzaile elgetarrak polimero birziklatu aurreratuen garapenaren eta plastiko-hondakinei bizi berri bat ematearen garrantzia azpimarratu du *Elhuyar* aldizkarian laster publikatuko den artikuluan. Konfinamenduan, etxetik, Elgetatik, ibili da lanean Sangroniz, eta "pozez" hartu du sariaren berria.

**Lehenik eta behin, zorionak irabazitako sariagatik! Zer da zuretako horrelako sari bat irabaztea?**

Eskerrik asko. Azken baten, pozez hartzen duzu, ikusten duzulako egindako doktore-tesi horren inguruan egindako lan guztia jendearentzat ulertzeko erraza izan dela. Alde horretatik, batez ere, poz handia eman dit CAF-Elhuyar sari hau lortzeko.

**Dibulgazio-artikulu onenaren saria jaso duzu, hain zuzen. Ez da erraza izango zientzialariendako kontzeptuak eta hitz teknikoak erraz azaltzea, ezta?**

Bai, hori egia da. Azkenean, zientzialariok gure artean berba egiten ohituta gaude eta kontzeptu edota hitz tekniko asko erabiltzen ditugu. Kontzeptuak guk ulertzen ditugu, baina zientzialariak ez direnei gure lana azaltzea guretako zailagoa izan daiteke. Azkenean, azalpenak ematerakoan asko sinplifikatu egin behar izaten dugu, eta hori bai dela erronka bat guretako.

**Hori izan da zuretako, pertsonalki, erronkarik handiena? Polimero birziklatuen garapenaren inguruan berba egiterakoan gizarteak ulertzeko moduko artikulua bat egitea?**

Bai, zalantza barik. Hori izan da erronka handiena, kontzeptuak modu sinplean azaldu ahal izatea eta zientziaz hainbeste ez dakien norbaitendako gaia ulertzeko erraza bilakatzea. Gainera, esan behar da plastikoez orokorrean jende artean nahiko ospe txarra dutela, batez ere erabili eta botatzeko material asko eta asko plastikoz eginda daudelako. Baina jendearentzat, agian, ez da hain arrunta polimeroek beste aplikazio ugari dituztela. Esaterako, medikuntzan oso garrantzitsuak dira, eta erabiltzen dira lentillak egiteko, edo gaur egun, koronabirusaren



pandemiaren aurrean, eskularruak, babesteko betaurrekoak, maskarak edota bestelako ekipamendu asko polimeroz eginda dago; plastikoz.

### **Egia da plastikoen inguruan entzutean alarma moduko bat pizten zaigula...**

Hori da. Batez ere, plastiko moduan ulertzen ditugulako, ia bakarrik, ontziratzeko plastikoak eta plastikozko poltsak. Eta egia da horiekin erabilera txarra egiten dugula, eta elikagaiek biltzeko plastikozko material gehiegi eramaten dutela. Baina kontuan izan behar dugu plastikoen aplikazioak geroz eta zabalagoak direla. Eta kasu batzuetan, ez da posible plastiko edo polimero horiek beste material batekin ordezkatzea.

### **Polimero birziklatuen garapena, plastiko hondakinak...**

#### **Zer dela eta aukeratu zenuen doktore-tesirako gai hau?**

Kimika ikasketak egin nituen, eta polimeroen inguruan ikasgai bat geneukan. Hor piztu zitzaidan interesa, eta horrela bukatu nuen polimeroen gaineko tesia egiten. Izan ere, ikasketak egin bitartean laborategiko lanak ere egiteko aukera izan nuen, eta ikerketan jarraitu nahi nuela ikusi nuen. Hori dela eta, hurrengo pauso logikoa doktore-tesia egitea izan zen. Azkenean, doktore-tesian proiektu ezberdinak egin genituen, eta horietako bat zen esnea gordetzeko dauden plastikozko esne-botila batzuen inguruan. Frantzian, nanopartikula batzuk gehitzen zaizkie botila hauei eta lortzen den material hori, behin erabilia, ezin da birziklatu gaur egun ditugun prozeduren bitartez. Horrela, birziklatu ezin daitekeen hondakin bat sortzen da. Gure ideia, beraz, material horri irtenbide bat ematea izan zen. Hondakin bat bilakatzen zen material hori berrerabilgarri den material bihurtzea. Material berri bat lortzea, alegia.

#### **Zenbat denbora eman duzu tesiarekin?**

Lau urte behar izan ditut. Gure fakultatean hiru edo lau urte behar izaten dira. Gure kasuan, literatura edota idatzizko lana egiteaz gain, lan esperimentalak ere egin behar izaten dugu, eta denbora behar izaten da esperimentu ezberdinak egiteko eta horietatik ateratako emaitzak aztertzeko.

#### **Ondoriorik ateratu duzu?**

Artikuluan azaldu dudako proiektuari lotuta, ikusi dugu posible dela hondakin bat izan zitekeen materiala berrerabiltzea eta horrela bizitza berri

bat ematea. Eta orokorrean, garrantzitsua dela polimeroen birziklapena sustatzea. Bestalde, konturatu gara badaudela beste polimero mota batzuk, biodegradagarriak, eta hauek ikertzea oso garrantzitsua da, batez ere, hondakinen arazoari begira.

#### **Zientzia-dibulgazioa gustuko duzula diozu...**

Euskal Herriko Unibertsitateak kultura zientifikoko katedra du eta, gainera, zenbait webgune ditu. Zientzialariok, bertan, publiko orokorrerendako zuzenduta dauden artikulua bidali ditzakegu. Bestalde, *Zientzia Kaiera* webgunean ere idatzi izan dut, eta baita ere kultura zientifikoko katedrak antolatuta izan dituen hitzaldietan parte hartu izan dut. Eta uste dut hitzaldien bidez ikusi dudala, benetan, zientzia gizarteari transmititzeak duen garrantzia. Zientziak bere papera jokatzeko du, eta hori, orain, koronabirusaren krisiarekin oso argi ikusi dugu. Hau da, zein garrantzitsua den gizarteak ulertzea zientzian inbertitzearen garrantzia. Izan ere, edozein arazoren aurrean, zientziak emango dizkigu arazo horri aurre egiteko tresnak eta baliabideak.

#### **Koronabirusaren krisian zientzialariak lehen lerroa etorri zarete. Hemendik aurrera ohikoagoa izango da? Mugarririk izan daiteke?**

Arazoa, oraindik, mahai gainean dugula uste dut. Uste dut konturatzeko ari garela zientzia zein garrantzitsua den horrelako egoera ezohiko bati aurre egiteko. Hala ere, gizarte honetan, emaitzak berehala ikusi nahi ditugu. Espero dut, behin arazo hau gainditzen dugunean, jendeak ez ahaztea zientziak zer paper izan duen. Azkenean, ez bada zientzian inbertitzen modu konstantean, aurrerago beste arazo bat etorriko gero ez gara gai izango horri aurre egiteko.

#### **Gaur egun, fake news eta horrenbeste informazio kontrajarriekin... inoiz baino garrantzitsuagoa da zientzialariari hitza ematea?**

Gaur egun, oso zaila da jakitea albiste bat edo informazio bat benetakoa edo faltsua den ala ez, nahiz eta iturria "nahiko fidagarria" izan. Horren aurrean, zientzialariak esaten dutena jarraitu behar dugu, bai, baina, horretarako, informazioa ezberdintzeko gai den gizarte bat beharko genuke. Azkenean, zientzian maila jakin bat duen gizarte bat gai izango da jakiteko edo tresna nahikoak izango ditu informazio bat edo beste kontrastatzeko. Hori oso garrantzitsua da gezurrei, *fake news*-ei eta horrelako arazoei aurre egiteko.





Leire Sangroniz, Elgetan.

**"PLASTIKOEK OSPE TXARRA DUTE, BAINA ERABILERA ASKO ETA GARRANTZITSUAK DITUZTE"**

**"EDOZEIN ARAZOREN AURREAN, ZIENTZIAK EMANGO DIZKIGU ARAZO HORRI AURRE EGITEKO TRESNAK"**

**"ZIENTZIAN MAILA JAKIN BAT DUEN GIZARTE BAT GAI IZANGO DA INFORMAZIOAK KONTRASTATZEKO"**

**Nolakoa da zure eguneroko lana? Ordu asko igarotzen dituzu laborategi barruan?**

Sasoi ezberdinak egon daitezke. Batzuetan, literatura egin behar dugu, eta, batez ere, beste zientzialari batzuek orain arte publikatu dutena aztertu behar izaten dugu. Argi dugunean literaturan zer dagoen eginda eta zer arazo aztertu nahi dugun edo zer egin nahi dugun, esperimenduak diseinatu behar izaten ditugu, eta ondoren, laborategian gauzatzen ditugu. Behin esperimenduak eginda, emaitzak aztertu behar izaten ditugu, eta emaitzen arabera esperimendu berriak diseinatzen ditugu, emaitza horiek benetan ildo onetik doazen ala ez ikusteko. Horrela, erakusten dituzten ondorioak egokiak diren edo ez jakin genezake.

**Ba al duzu gaur egun esku artean beste ikerketa proiekturik?**

Polimero birziklatu aurreratuen garapenarekin erlazionatuta, ez. Hala ere, badaude ikerketa taldeak gure fakultatean, materialak birziklatzeko modu berriak ikertzen ari direnak. Baita iturri berriztagarrietatik datozen materialak garatzen ari direnak. Izan ere, gaur egun erabiltzen diren plastiko gehienak petroliotik datoz, eta horri irtenbide bat topatu nahi zaio. ■■■



# Jatekoak prest, etxera

JANARI PRESTATUAREN LORALDIA



**MIREN RODRIGUEZ**

EROSKI CONSUMER

ARGAZKIA: FREEPIK

Gero eta gutxiago aritzen gara sukaldean. Ondorio horixe ateratu du GFK enpresak azterketa honetan: *Cocina: actitudes y tiempo que los españoles emplean en ella –Sukaldea: jarrerak eta espainiarrek bertan ematen duten denbora–*.

Hor esaten denez, Espainiako herritar helduen %51k astean lau ordu baino gutxiago pasatzen dute eltze artean. Bi ondorio ateratu daitezke azterketa hori ikusita: alde batetik, ultra-prozesatuak nagusi direla –gehien kontsumitzen diren produktuen %64–, eta bestetik, jendeak gero eta gehiago eskatzen duela janaria etxera eramanez diezaioten.

Azken horren erakusgarri da fenomeno horrek urtean 2.400 milioi euroko ekarpena egiten diola Espainiako ekonomiari. Halaxe dio DBK behatokiak.

Janari prestatuaren loraldi eta distira horrek merkatu eta aukera berriak sortu ditu, eta supermerkatuen arlora ere iritsi da.

Kantar Wordpanel enpresak egindako azterketa baten arabera, saltoki horietan hiruhileko bakoitzeko %10 handitzen ari da plater prestatuen salmenta.

Errestaurazioaren arloak, nolabait, bat egin du txikizkako merkataritzarekin, eta esperientzia berriak eskaintzen dizkio bezeroari. Kalitate handiko eskaintza dago tartean, eta talde gastronomikoak ari dira ahalik eta gehien zaintzen bai bezeroen erosotasuna bai produktuak eroslearengandik hurbil prestatzeko aukera.

## Gero eta ospe handiagoa

Jateko prest heltzen ziren elikagaiek ez zuten ospe onik orain dela hamarkada batzuk. Janari lasterrarekin eta nutrizio balio eskasarekin lotzen ziren. Egoera aldatu egin da, ordea. Kontsumitzaileen artean gero eta kezka handiagoa dago elikadura osasungarriarekin, eta Internetek eskaintzen dituen aukera handiei esker banaketaren arloa gai izan da era guztietako gustuei, lehentasunei eta intolerantziei erantzuna emateko. Hala, gorantz

heldu den merkatu-nitxoa sortu da.

Arlo horretako berrikuntzek oihartzun handia lortu dute Instagram bidez, eta ospetsu egin dira hainbat plater. Adibidez, Hawaiioko poke delakoa. Arrain marinatua, arroza edo kinoa eta berdurak konbinatzen ditu ontzitzo batean. "Plater ona egin daiteke osagai horiekin, baina saihestu egin behar dira azukrea duten saltsak", ohartarazi du Beatriz Robles dietista-nutrizionistak.

Etxera eramaten duten janaria ere izan daiteke osasungarria, eta herrialde batzuetakoa bereziki egokia da horretarako. Indiako gastronomiak, adibidez, hainbat abantaila ditu, eta leku handia egin du etxera eramatekoen eskaintzan.

Abantaila horietako bat da otorduak *tandoor* labean egitea. Buztinezko ontzi zilindrikoa da, eta ikatz begetala erabiltzen dute. Horri esker, elikagai frijituak edo gisatuak baino kaloria gutxiagoko platerak dira. Horrek ez du esan nahi, dena den, kantitateak ongi neurtu behar ez direnik. Horixe azpimarratzen du, hain zuzen ere, elikadura arloko

## ESKAERA HANDITUZ DOA ETA ESKAINTZA ZABALDUZ, ETA MERKATU-NITXO BERRIAK SORTU DIRA



industriari kalitatea kontrolatzen diharduen Gemma del Caño adituak.

Horrekin batera, espezieen zapore sendoak lagundu egiten du elikagaiei gatz gutxiago botatzen. Kaki minei edo pikantei ere ez zaie beldurrik izan behar. Hor daude, esaterako, Mexikoko jalapeñoak: "Produktu horrek 30 kaloria baino gutxiago ematen ditu 100 gramo bakoitzeko, baina nutrizio

balio gutxi duen beste zerbaitekin konbinatzen badugu ez du interes handirik edukiko", azaltzen du Del Cañok.

### **Ondo irakurri online karta**

Edozein eskaera egin aurretik komeni izaten da eskaintzako menuari begiratu on bat ematea, eta zer eskatzen ari garen jakitea. Gero eta jatetxe gehiagok zehazten dute online menuak nola osatuta dauden, eta

nutrizio arloko informazio egokia ematen dute; izan ere, ez dira gauza bera arrainarekin egindako sushia edo poka eta surimiarekin eta arroz frijituarekin egindakoak.

Beste gomendio bat: arreta bereziarekin irakurri behar dira oilaskoa oinarri duten plateren osagaiak. Irakurri letra txikia eta ziurtatu elikagaia egiaz dagoela eginda haragi zuri horrekin. ■■■

# Aconcagua igotzen gazteena

MENDIA

---

## IMANOL BELOKI

ARGAZKIAK: NAIARA EZEIZA ETA I.B.

---

Naiara Ezeiza eskoriatzarrak 1992. urtean, 14 urte zituela, Aconcaguako gailurra egin zuen gurasoekin batera. Mendi horretara igo den emakume gazteenaren lorpena urte askoz izan da berea, nahiz eta gazteagoak igo diren orduetik. Gaur egun, ez da ari halako erritmo gogorrean, baina ahal duen guztietan joaten da mendira, "deskonektatzera". Hala ere, garai hartan bizitakoak gogoan ditu, oso presente, eta zirrarez bizi ditu espedizioetako kontakizunak.

Herria hunkituta zegoen bidaia hasi genuenean: "Oker ez banago, 1992ko urtarrilaren 2an joan ginen hemendik, eta, urtarrilaren 5ean, aireportura eramán gintuzten Migel Angel Urrutia eta Alex Belategi eskoriatzarrak Perdido mendian hil ziren, gu kanpoan geundela; eta bueltatu ginen arte, urtarrilaren 26a-edo izango zen, ez genuen izan gure lagunen heriotzaren berri".

Espedizio komertzial bat zen egindakoa, abentura guztia euren poltsikotik ordainduta. Guztira, 18 lagun joan ziren Euskal Herritik; Arabatik gehienak, Nafarroatik zenbait, eta Debagoienetik ordezkari bakarrak izan ziren hiru eskoriatzarrak. Espedizioko nagusia, berriz, Juanito Oyarzabal mendizale ezaguna

izan arren, bi taldetan banatu ziren, eta eskoriatzarrek Atxo Apellaniz mendizalea izan zuten gidari; hura hiru urteren ostean K2-ko espedizio batean hil zen, eta, Ezeizaren esanetan, bere mendiko pauta guztiak markatu zizkion pertsona izan zen.

### Altueraren indarra

Sistemak eta janzkerak asko aldatu direla orduetik hona azpimarratu du Ezeizak. "Lehen, aklimatazioa oso garrantzitsua zen; orain, diotenez, hobe da jarraian igotzea, gorputzari ez emateko denbora ezta konturatzeko ere, nahiz eta horretarako gaitasunak behar diren. Gure kasuan, 18 lagunetik 17k egin genuen gailurra. Eta, egin ez zuena oso prestatuta egon arren, altuerak pertsona batzuk mendera ditzake...".

### Errekorraren froga gailurrean

"Aitak egin zuen gailurra lehenbizi, eta bertan dagoen liburuxkan amari eta bioi dedikazioa jarri zigun pentsatuz ez genuela egingo. Hala, gora igotzean, berak idatzitakoa

**"ALTUERAK PERTSONA  
BATZUK MENDERA  
DITZAKE;  
HORRETARAKO, MENDIA  
NEURGAILU BAT DA"**

borratu, eta geurea jarri genuen". Bueltatu zirenean izan zuten ongietorria ere izugarria izan zela gaineratu du: "Lehenengo harrera Sondikan egin ziguten. Familia guztia etorri zen, lore sortekin, ikurrinarekin... eta gero, Eskoriatzako herriak, Kirol Elkarteak, Almen ikastolan jasotakoa...".

### Himalaiako abentura

Aconcaguako lorpenaren ostean, hurrengo urtean, 8.201 metro dituen Cho Oyu mendiko gailurra egitera joan zen Ezeiza. Gurasoekin batera eta beste bost lagunekin joan zen, eta, tontorra ez egin arren, abentura izugarria izan zela adierazi du. "Cho Oyu mendia Txina eta Nepal arteko mugan dago. Eta 800.000 pezeta ordaindu genizkion Nepalgo Gobernuari igo ahal izateko, baina, zoritxarrez, esperientzia militar bat zegoen Txinako aldetik eta bertatik pasatzean atxilotu egin gintuzten –ama, Cesar laguna eta ni–, eta Txina aldera bideratu. Kasualitatez, beste espedizio bat zegoen, eta talde hartako hiru lagun behean zeuden; haiek isuna ordaindu, eta une batez gu ere talde berekoak ginela pentsatuta edo, nahaste une batean glaziarrean barrena sartu ginen Cesar, ama eta hirurok... Mendiko esperientzia gisa, hori izan zen niretzat benetako abentura eta esperientzia". ■■■





Naiara Ezeiza eskoriatzarra.



Ezeiza, Aconcaguan.



Gailurrera bidean.



Tontorrean ateratako argazkia.

# Elkarlanaren garrantzia

KRISIALDIKO IKASGAIA



**IDURRE ALBIZU**

GARAIA PARKE TEKNOLOGIKOA

ARGAZKIA: BRANIMIR BALOGVIC

Garai berezia bizi duguna gaur egun! Pertsona askok lehen egunetako konfinamenduan esaten zuten: "Noizbehinka pentsatzen dut bakarrik nagoela etxean sartuta. Beste guztiak bizitza normala egiten ari direla, baina 20:00etan txalo egitera ateratzerakoan eta gainerako guztiak ni bezala ikustean sentitzen dut ez nagoela bakarrik, eta denak batera ari garela lanean egoera honetatik hobeto eta osasuntsu ateratzeko". Gertatu al zaizu horrelakorik? Talde lanerako beharrezkoak diren osagaien adibide argia izan daiteke honako hau.

Taldean lan egiteko, lehenengo eta behin, helburu bat behar dugu: helburu bera guztiontzat, eta partekatua. Ez bakoitzak berea. Bakoitzak berea duenean, horrelako egoera batean kalera ateratzen da edozein aitzakiarekin. Segurtasun neurriak bete baino gehiago, tranpa egiten dio bere buruari eta arriskuan jartzen ditu ingurukoak.

Bigarren osagarria rol banaketa da. Egin dugunaren antzera da: osasun arloko pertsonak borrokaren lehen lerroan izan dira, eta besteok etxean: aitona-amonak seme-alaben zaintzarekin eta laguntzarekin babestuak, eta

gaztetxoak inoiz baino finago eta formalago. Bakoitzak bazekien zein zen bere lana. Hala, talde lanean norbanakoak buru-belarri murgiltzen dira helburua lortzeko, proiekturantz bidean.

Eta talde lanean ari den ekipo batek konfiantzaz jokaten du. Ez dut behar jakitea bestea ere etxean gelditu den. Ziur nago horretaz –nahiz eta batzuetan zalantzak izan–. Ziur nago atera behar baduzu justifikatua izango dela. Harremanak oinarritzkoak dira taldean lan egiteko eta elkarrekin bizi ahal izateko. Lotura horiek eraikitzen dute gizarte edo enpresa baten kultura.

## Lidergoa eta komunikazioa

Ez ahaztu ekipoaren osagai nagusienetako bat lidergoa dela. Guztiok eta hain toki desberdinetatik gauza bera egiten aritu gara denbora luzez, eta hainbeste pertsona. Kasu batzuetan beste batzuetan baino zailagoa da.

Batzuek esango dute lidergoak baino eragin handiagoa dutela legeek eta isunek, eta horrela izango da kasu batzuetan, baina, beste askotan, sumatutako lidergoaren eraginak bultzatu gaitu. Lidergoa formala – ezarritakoa– edo naturala – sinistutakoa– izan daiteke,

baina lidergoa da, azken finean.

Azkenik, garrantzi handiena duen osagaia komunikazioa da. Aurretik aipatutako osagai guztiak ez dute askotarako balio komunikazio eraginkor eta osasungarri baten faltan. Pentsa egunotan zer-nolako buruhaustea izan diren komunikazio akatsak direla eta! Komunikazioa ez denean garaiz eta argitasunez iristen akatsak izaten dira lantaldean.

Irudi bat erabiltzearen, esango nuke komunikazioa lurra dela, eta gainerako osagaiak –lidergoa, harremanak, rolak, helburuak– lur horretan sustraitutako landareak direla. Lurra ez bada proposa landareek ez dute elikagai egokirik, eta hil egiten dira. Komunikazio aproposik gabe harremanak ez dira konfiantzakoak, lidergoak ezin du bere mezua helarazi, helburuak ez daude argi eta inork ez daki zein den bere rola. Dena nahasten da eta ekipoa pertsona ugariz osatutako multzo bat besterik ez da. Bakoitza berera doa, liskarrak sortzen dira, arlo asko ez dira betetzen, eta, tarteka, askoren arteko borroka pizten da.

Ovidio Peñalverrek proposatzen ditu komunikazioa, lidergoa, harremanak, rolak eta helburua talde baten osagai nagusi gisa.





## **KRISI EGUNOTAN GIZARTEAK TALDE KOHESIONATU MODUAN EGIN DU LAN, HELBURU BAT BURUAN**

### **Kontuz disfuntzioekin**

Patrick Lencioni adituak, berriz, talde lanerako bost disfuntzio proposatzen ditu. Bost arrazoi taldearen lana ez-apropos bihurtzen dutenak. Lehena partaideen arteko konfiantza falta da. Hau da, harremanak ez direnean egokiak agertzen da lehen oztopoa.

Bigarren pausoa da gatazka izateari beldurra edukitzea. Horren ondorioz, askotan, gezurrezko bake giroan bizi eta lan egiten dugu, arazoak agerian ipini ezinda eta azpian dauden egoerei uko eginda.

Hurrengo fasea da taldeko partaideak konpromisoa galtzen hastea. Taldean egotea besterik ez dute egiten. Ez dago ekarpenik eta helburua da gutxienekoak betetzea eta itxura zaintzea. Lotura oso azaleko bihurtzen da, eta partaide bakoitzak taldera ekarri edota taldetik jaso

dezakeen aberastasuna galtzen doa. Ondorioz, beste pauso bat ematen du taldeak bere desagertze prozesuan, eta hori da ardurak saihestea. Ez du inork ardurarik bereganatu nahi ez dagoelako ez besteenganako konfiantzarik ez konpromisorik. Ez da ageriko arazorik edo liskarrik ikusten, baina sumatu egiten da barne egoeran eta partaide guztien aldetik.

Lencionik azaltzen du azken maila gertatzen dela taldeak helburuak eta emaitzak alde batera uzten dituenean. Une horretan martxan jartzen da kronometroa, atzera kontaktarekin. Taldea desagertze bidean doa; izan ere, helbururik eta emaitzarik gabe taldearen izateko arrazoia galtzen da.

Egunotan, ordea, gure gizarteak talde kohesionatu moduan egin du lan, eta elkarren arteko konfiantza

izan dugu. Bakoitzak argi du bere rola eta hala jokatu du. Gure arteko harremanak estutu egin dira – auzokideekin, lagunekin, senitartekoekin –, izan presentziazkoak zein telematikoki burututakoak, eta kasu batzuetan inoiz baino harreman oparagoak lortu ditugu. Etxe, auzo edo talde bakoitzean betebeharrak batzuk jarraitu dira. Lidergo eta ardura pertsonalak izan ditugu, eta helburu argi bat: egoera honetatik ahalik eta ondoen eta azkarren ateratzea. Borroka irabaztea. Osasuna zaintzea. Etorkizuna izatearen esperantza. Eta horretan komunikazioa izan da elikagai, konektore, eta bultzatzaile. Ea aurrerantzean ere elkarlanean jarraitzerik dugun eta bai enpresetan zein erakundeetan samurragoa den ibilbidea. ■■■

# Maialde jatetxean, postre eskaintza zabala aukeran



**JESUS KALBOETXEAGA** SUKALDEBURUA  
IRUDIAK: MAIALDE JATETXEA

Elgetako Maialde jatetxean tradizioa izaten dugu oinarri, nahiz eta lagungarri bezala plateri sormenezko txinparta batzuk gehitzea gustatzen zaigun.

Ostalaritza sektoreak ekartzen dituen aldaketetarako ilusioz eta erronka berriak hartzeko asmoz lan egiten dugu beti Maialde jatetxean. Sukaldaritza gardena egiten jarraitzen dugu, eta baita bezeroarekiko

gertukoa dena ere. Erronka horietako bat bizi dugu azken asteetan; jatetxea itxita dugu, eta gogotsu gaude atea berriro ireki eta gure bezeroak hartzeko.

## Otorduak, bezeroen gustura

Beti prest egoten gara bezeroek proposatutako aukera berriei eusteko ere; euren zerbitzura jartzen gara eta eskatzen diguten gustuetara eta aurrekontuetara moldatzen dakigu. Edozein eskaritara zabalik egoten gara eta bezeroei

aholkuak ematen dizkiegu, euren otordu hori ahalik eta onena izateko helburuarekin.

## Eskaintza zabala

Gure menuetan hainbat aldaketa tartekatu ohi ditugu, 23 euroren truke dasta daitezkeenak, eta etxeko postreek, esaterako, arrakasta handia izan ohi dute gurean. Datorren orrian ikus daiteke, esaterako, euskal pastelaren gure bertsioa; masa hautsia, pastel-krema eta sagar-konpotarekin egina. ■■■

## Maialde jatetxea

- **Helbidea:** San Roke kalea 26, Elgeta.
- **Telefonoa:** 943 78 91 07.
- **Webgunea:** casaruralmaialde.com
- **Facebook:** Maialde.



**MAIALDE JATETXEARI ESKER**  
IRABAZI BI LAGUNENDAKO OTORDUA. HARTU PARTE!



943 25 05 05



kluba@goiena.eus



KLUBA Jatetxea [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



## Euskal pastel sagarduna

### Osagaiak (4 lagunendako)

- 170 g irin
- 100 g gurin
- 175 g azukre
- Hiru arrautza
- Litro erdi esne
- 30 g arto irin findu
- Kanela-adar bat
- 3 gorringo
- 3 erregina-sagar
- Sultana-mahaspara sorta
- 4 orejoi
- 4 aran-mahaspara zatitu
- Basokada bat ardo zuri
- Basokada bat ur

### Prestaketa

- 1. Masa hautsia egiteko, arrautza bat, gorringo bat eta azukrea nahastu eta ondo irabiatu. Gurina pomada puntuan jarri. Dena nahastu eta irina gehitu, masa homogeneoa geratu arte. Film-paperean bildu eta sartu hozkailuan.
- 2. Pastel-krema egiteko, esnea eta kanela adar bat kazolan berotu. Jarri azukrearekin findutako arto-irina ontzi batean. Aurretik erreserbatutako esnea gehitu eta ondo mugitu.
- 3. Gehitu 3 gorringoak eta arrautza oso bat eta nahastu. Esne bero apur bat gehitu, nahastu eta bota dena berriro kazolarara, loditu arte.
- 4. Konpota egiteko, sagarrak zuritu eta zatitu. Jarri osagai guztiak batera irakiten, sagarrek trinkotasun biguna hartu arte.
- 5. Masaren erdia baino pixka bat gehiago zabaldu. Igurtzi gurin pixka batekin moldea. Pastel-kremaren gainean sagar-konpota zabaldu. Gainean geratzen den erlaitza tolestu. Arrautza irabiatua duen azalera osoa igurtzi. Laberatu 200 gradutan 25 minutuz.

Zailtasuna: ●●●●●

## Aurreko zozketako irabazlea:

Feli Zumalde Barrena (Oñati)

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus)

**goienakluba**<sup>“</sup>  
Euskara irabazle, denok irabazle!

# Izerditzeko baino gehiagorako

KIROL-ARROPA

---

**NAROA URIEN BERRIO**

ARGAZKIAK: NIKE.ES

---

Eguneroko bizimodua nabarmen aldatu da pandemiak eragindako osasun-krisia hasi zenetik. Kontsumo-ohiturak aldatu egin dira, eta egungo egoerara egokitu. Aldaketa hori asko nabarmendu da kirol-arroparen munduan; izan ere, mundu guztiaren desira-objektuetako bat bihurtu da. 2020a *legging*-en, kirol-modira iraukorren eta yogako arroparen urte bilakatu da.

Erosotasuna eta estiloa nahasten duten arropak bilatzen dira kirola egiteko, eta horietan, distira, satinatuak eta argizariak agertzen ari dira.

## **Yoga-arroparen nagusitasuna**

Kirol-arropen tendentzietan, yoga egiteko arropak goranzko joera hartu du. Charm irudi aholkulari Olatz Agirreren esanetan, kirol hau "unean uneko ariketa" bihurtu da, eta "kirol-arropa horren kontsumoa asko igo da" bereziki egoera honetan.

*Legging*-ak oso modako jantziak dira kirol-arroparen pizkunde honetan. Hori adierazi du Agirrek: "*Legging*-en salmentak %42 igo dira azken urtean. Mota guztietakoak aurki daitezke, baina, bereziki, metalizatuak, distiratsuak, moldekatzaileak, *push up* delakoak, erreduktoreak eta gerri altukoak dira gehien erabiltzen direnak. Horrez gain, *legging*-ak poltsikoekin eta kreamilarekin ere eramaten dira". Koloreari dagokionez, *legging* beltzak dira



Topak eta tiro luzeko *legging*-ak nagusi.


arrakastatsuenak, Agirrerren esanetan. Pieza bakarreko kirol-jantziek ere –batez ere, beltz solidoan– beren lekua aurkitu dute gure kirol-poltsan. Gorputzaren goiko atalari dagokionez, topek nagusi izaten jarraitzen dute. "Praken tiroa igo egin da, eta honek topen zein jertseen luzera laburtzea ekarri du. Crop-topak, esaterako, momentuko joera berria dira. Hauek klasikoak zein sofistikuak izan daitezke: gardenak, saredunak... Modu berean, bizkarra gero eta

garrantzi handiagoa hartzen ari da eta top asko zabalak dira atzealdean", dio Agirrek.

#### **Kolore neutroak eta neon tonuak**

Kirol-arropa noranahikoa izatea bilatzen den honetan, koloreak oso garrantzitsuak dira. "Kolore klasikoak eramaten dira gehien, hala nola beltza, gorri-morea, berde iluna eta grisa. Baina baita neon tonuak ere, moda orokorrean eta *beauty* munduan joera handia dutenak; batez ere, arrosa eta horia. Bestalde,


pastel koloreak –bereziki, urdin argia, arrosa, lila, beixa eta zuria– joera dira; zehazki, yogan. Azkenik, kirolean ohikoak diren kolore fosforitoak ere bai", dio Agirrek. Ildo berean, kirol-arropa ekologikoa "aurreikusten den joera nagusietako bat" da. "Markak planeta babesteko beharraz jabetzen hasi dira. Materialak birziklatu eta organikoekin aldatzen dituzte eta bezeroak nahiago du modu jasangarrian egindako jantziak bilatu", dio Agirrek. ■



Crop-top beltza.




Kolore biziak eta forma geometrikoak.



Forma askotariko topak.



Yoga egiteko osoko jantzia.



Bizkarraren protagonismoa.



Top sofistikuak.



# Autoa berriz hartu baino lehen

AUTOA MARTXAN JARTZEKO GOMENDIOAK

## MAIALEN SANTOS

ARGAZKIAK: PIQSELS, NEOMOTOR, PXHERE

Koronabirusaren krisiak eragindako konfinamendu egoeraren eraginez, etxean geratu behar izan du jendeak, eta, beraz, ibilgailuen erabilera –eta ondorioz, trafiko fluxua– izugarri jaitsi dira azken asteetan. Gutxi izan arren, erosketa egitera edota lanera joateko autoa hartu behar izan duenik egon da, halere.

Konfinamendua arintzeko planaren baitan, jendea hasia da kalera irteten, eta baita autoa berriz erabiltzen ere. Arrasateko Udalaizt auto-kontzesionarioko arduradun Jon Galdosen esanetan, autoa denbora luzez geldu eduki eta berriz hartu baino lehen badaude kontuan izan beharreko zenbait gomendio, autoaren funtzionamendu egokia bermatuta egon dadin.

### Bateria zaindu beharra

"Autoa hartu eta bateria agortuta zaiola konturatu dira zenbait pertsona azken boladan", dio Galdosek. Horrelako zerbait gertatuz gero, errepedeko asistentzia zerbitzura deitzea aholkatzen du berak: "Autoa martxan jartzen lagun zaitzaten". Horren ostean, halere, "komenigarria" da tailer batera hurbiltzea, "autoak ondo funtzionatzen duela egiaztatu eta guztia ondo dagoela jakiteko".

Hala eta guztiz ere, bateriarik gabe geratzea "saihestu" egin daitekeela uste du Jon Galdosek, eta, horretarako, autoak denbora luzez geldu egon behar badu, "noizean behin" martxan jartzea egokia dela dio: "Garaje barruan hau egitea arriskutsua izan daiteke, baina ahal duenak kalean egin dezala". Hala, egunean hamar minutu horretarako hartzea "perfektua" dela aitortu du. Gainera, autoan pixka bat ibiltzeak ere laguntzen du bateriaren zainketan, "askok orain artean horretarako aukerarik izan ez duten arren".

### Autoaren nibelak kontrolatu

Autoa erabiltzen hasi aurretik nibelei "errepaso bat ematea" ere ondo dago, Udalaizteko arduradunaren hitzetan. Esaterako, olio maila begiratzea komenigarria da: "Autoa hotz dagoenez, olio loditu egiten da, eta posible da motorra egoki ez koipeztatzea". Olio maila nola dagoen ikusteko, neurgailuarekin, hagaxkarekin, maila neurtu beharko litzateke,

## AUTOA DENBORA LUZEZ GELDI EGONDA, ABIAN JARTZEKO FAKTORE BATZUK KONTUAN EDUKI BEHAR DIRA

eta indikatzailearen erdian dagoela ziurtatu; minimoaren eta maximoaren erdian, alegia.

Beste alde batetik, izotzaren aurkako likidoaren mailari ere erreparatu behar zaio, eta kasu honetan ere berdin: erdian mantendu. Autoak olio edota izotzaren aurkako likido nahikorik ez balu, pixka bat gehitu ahalko litzaioke.

### Gurpilen presioa zaindu

Jon Galdosek emandako beste gomendio bat da gurpilen presioa zaintzearena; hala ere, azken hau "sarritan" egitekoa dela uste du: "Are gehiago, autoa geldu izan badugu".

Gurpilek izan beharreko presioari buruz galdetuta, "ibilgailuaren araberakoa" dela adierazi du arduradunak. Edozelan ere, 2,5 eta 2,8 kilo presio artean izatea gomendatzen dute autoetan adituek. Gauzak horrela, "nork bere autoan" begiratu behar du zein den presio egokia, eta, hain zuzen, "erregailuaren tapan begiratuta lor daiteke informazio hori". Furgonetan kasuan, bestalde, presioa ezberdina dela azaldu du Galdosek: "3 edo 3 kilotik gorako presioa izan behar dute kasu honetan".

Azkenik, ibilgailuen higieena mantentzea "ezinbestekoa" dela azpimarratu gura izan du: "Are gehiago, koronabirus garaietan. Udalaizten, ozonozko makinarekin desinfektatzen hasiko gara". ■



Bateriarik gabe geratu den autoa, pintzekin martxan jartzen.



Gurpilen presioa beharrezko neurriraino igotzen.



Autoaren olio maila hagaxkarekin neurtzen.

# Nagore Goñi

**MIREIA BIKUÑA MADRID**

ARGAZKIAK: NAGORE GOÑI

Nagore Goñiri (Oñati, 1985) lehen haurdunaldiarekin sortu zitzaion argazkiak ateratzeko grina. Ama izateak "sormena piztu" ziola uste du, eta, susmo hari tiraka, argazkilaritza estudioa zabaldu zuen, koronabirusak dena hankaz gora ipini aurretik.

**Argazkilaritza estudioa zabaldua, ametsa bete duzu. Pozik?**

Bai, oso pozik. Argazkilaritza bera izan da nire bizitzan sartu dena. Komunikazioa izan da nire bizita profesionalaren oinarria. Bederatzi urtez kazetaritza lanak egin ditut, eta, horrekin batera, diseinu grafiko eta argazkilaritza ikasketak. Hirurak gustuko ditut, baina hirugarrenak egiten nau zorionsu. Hori horrela, nire proiektuaren alde egin nuen apustu, eta hemen nago. Bihotzarekin egindako apustua izan da.

**Kazetaritzak zertan lagundu ditu kamerarekin ibiltzeko orduan?**

Kazetari lanak esperientzia eman dit, bai argazkilaritzan, baita bizitzako beste arlo askotan. Lagunekin eta familiakoekin proba asko eginda nituen arren, benetako grina lehen haurdunaldian etorri zitzaidan. Akaso, horregatik, Lea alaba izan da nire inspirazio iturri. Ama izateak sormena piztu zidan, nonbait, eta horrek aurrera



jarraitzeko indarra eman dit beti. Ostean etorri zen Jare txikia.

**Askotariko argazki saioak egiten dituzu.**

Erretratua da nire argazkilaritza arlorik kuttunena. Eta horretan dihardut. Haurdunaldiko argazkiak, jaioberrienak, haurrak, familiak, bikoteak... Era berean, irudiak, markak edo produktuak ezagutzera emateko edukiak sortu ditut enpresa txikiendako, komertzioendako... Argi naturalez egindako argazkilaritza autentikoa, hurbila eta atemporal eskaini gura dut. Dena den, berriro zabaltzen dudanean, nortasun agirirako eta pasaporterako

argazkiak ere egingo ditut, herritarrek hala eskatuta.

**Nola definituko zenuke zure burua argazkilari moduan?**

Ikusmin handikoa, sentibera eta perfektionista naiz. Minimalismoa, sinpletasuna, eta naturaltasuna maite ditut. Argazkian pertsona da inportanteena. Pertsona horrek bizi duen momentuak, egoerak, sentimenduak... egiten du argazkia berezi eta bakar. Eta zailtasuna hor dago: sentimendu hori islatzea. Urteak pasata, argazkia ikusterakoan, egun hartako oroimenak etorriko dira bueltan. Detalle horretan dago argazki errepikaezin baten benetako balioa. ■■■





# "Euskal balioen isla argia dira bibliotekak; harrigarriak dira!"

JAY MANN ARRASATEKO BIBLIOTEKAKO INGELESEZKO SOLASALDIETAKO GIDARIA

---

## AITZIBER ARANBURUZABALA JULDAIN

ARGAZKIAK: JAY MANN

---

Ameriketako Estatu Batuetako El Pason jaio zen Jay Mann, orain dela 43 urte, eta Arrasaten "pozik" bizi da. Ekologia ikasketak egin, eta intsektuekin, txoriekin eta zuhaitzekin lotutako lanetan jardun zuen ondoren; baina, bizimoduz aldatzeko gogoz, Seattleko unibertsitatean Biblioteka eta Informazio Zientziak ikasketak egin zituen, eta liburutegietan egin zuen lan gero; gaur egun, ingelesezko solasaldietako gidaria da Arrasatekoan.

### Zerk bultzatuta etorri zinen?

2008an lana galdu nuen; murrizketak izan ziren lantoki nuen liburutegi publikoan, eta aspalditik nituen pare bat amets betetzea erabaki nuen: bizikletan bidaia luzea egitea eta itsasoaren bestaldean lan egitea eta bizitzea.

### Eta biak bete dituzu?

Bai, hala da; Kanada bizikletaz zeharkatu nuen lehenengo, eta Ameriketako Estatu Batuetako mendebaleko kostan behera ibili nintzen geroago, eta hala egin nituen 3.500 kilometro bi

hilabetean; izan dudan esperientziarik onena. Eta bigarrenari dagokionez, Espainian ingelesa irakasten ibili izan diren nire hainbat lagunaren moduan, probatzea pentsatu nuen, eta iaz abuztuan CELTA ziurtagiria, hezkuntza maila ezberdinetan eskolak ematea ahalbidetzen duena, atera nuen Bartzelonan.

### Eta zelan heldu zinen Arrasatera?

Ikastaroa amaitu nuenean, Arrasateko hizkuntza eskola batean hasi nintzen lanean. Zortea izan dut, bi herritartasun ditudalako –nire aitajauna Lituaniakoa zen–; bestela, zaila litzateke Europako Batasuneko hiritar izan barik lana aurkitzea. Esperientzia polita ari da izaten.

### Bibliotekan kolaboratzen duzu. Zer dela eta?

Hamar bat urtez jardun nuen liburutegietan lanean, eta Arrasatera heldu nintzenean harrituta geratu nintzen halako liburutegi ederra ikusi nuenean; nire burua aurkeztu, eta eurekin kolaboratzeko aukerarik nuen galdetu nien, eta ingelesezko mintzapraktika saioak egitea proposatu zidaten liburutegiko langileek geroago.

### Eta zer moduz doaz?

Bost saio egin ditugu, eta asko gozatzen dut. Giro oso ona dago; ohiko ikasgela batekin alderatuz, ezberdina. Jendea lasai eta elkarrekin gertuko ikusten dut. Asko ikasi dut ikaskideekin. Etena izan dute saioek, baina *online* egiten hasi gara apirilean.

### Zein da saioen helburua?

Berba egiteko samurtasuna irabaztea da. Saioen egitura zabalik dago, ez dira gramatika-saio itxiak. Astean behin elkartu izan gara eta saio bakoitzak gai bat izan du; besteak beste, familia, lagunak, bidaiak...

Solasaldia abiatzeko hainbat galdera edo puntu proposatzen dizkiet, eta bikoteka edo talde txikitan jarduten dute, eta hor nago ni, edozertan laguntzeko.

### Zein da parte-hartzaileen profila?

Jende heldua eta ingeles maila handikoa da; batzuk, ingelesa hitz egiten den herrialdeetan bizi izandakoak. Oso atseginak dira guztiak, oso interesgarriak eta umore onekoak. Pazientzia handia dute nire euskarazko ahoskera dela eta; euskal ohitura eta bestelako istorio asko kontatzen dizkirate.



## "SOLASALDIEN EGITURA ZABALIK DAGO; EZ DA GURE ASMOA GRAMATIKA SAIO ITXIAK EGITEA"



Bibliotekan ingelesezko solasaldiak gidatzen ditu Arrasaten bizi den amerikarrak.

Arrakasta izan zuen deialdiak, eta, itxarote-zerrenda luzea zenez, Carly Anderson nire lankideak bigarren taldea abiatu zuen geroago. **Ameriketako liburutegietan lanean ibilitakoa zarela esan duzu. Non?** Bi herri txikitan –3.000 biztanle– liburutegiko zuzendaria izan nintzen: Coloradon eta Mexiko Berrian. Denetik egiten nuen: bulego-lanak; liburuak aukeratu eta lortu; dirulaguntzak eskatu; ekimenak sortu.... Polita da lana, denetik egiteko aukera duzulako; eta esan behar da

komunitatearen bihotza izan ohi dela liburutegi publikoa herri txiki askotan. **Zer iritzi duzu, orokorrean, euskal liburutegiei buruz?** Harrigarriak dira, eta uste dut Euskal Herriaren balioak islatzen dituztela. Sekula ikusi bakoa nintzen Donostiako Ubik Sorkuntza Liburutegia modukorik. Ikaragarria da arte sorkuntzara lotuta dagoen liburutegi bat egotea. Bilboko eta Gasteizko liburutegi batzuetan ere izan naiz, eta itzelak iruditu zaizkit horiek ere.

### Eta zer diozu Arrasatekoaz?

Arrasatek duen hedadurarako oso handia da; hala ere, egun askotan beteta dago adin ezberdineko erabiltzaileekin.


### Oso ezberdinak dira amerikarrekin konparatuz?

Esango nuke euskal liburutegi publikoak tradizionalagoak direla, irakurtzeko eta ikasteko toki isilak dira; azpimarragarria da, baina, guztiek dituztela ekimen oso interesgarriak. Uste dut liburutegiak oinarrizko zerbitzua, komunitatea eta harremanak direla; hortaz, ez da harrizkoa maitatuak eta erabiliak izatea hemen.

### Gustura bizi zara hemen?

Oso pozik! Bizikletan ibiltzea, mendi ibilaldiak egitea eta argazkilaritza ditut zaletasun nagusi, eta Euskal Herria paradisu da hiruretarako. Era berean, jendea oso atsegina da, eta janaria ikaragarria da. Apur bat jeloskor nago bertako bizimoduarekin: lagunek eta familiak duten garrantziagatik, itsasoa eta mendia, biak, gertu daudelako, eta ikasteko tradizio asko daguelako; hortaz, espero dut Arrasaten bizitzen urte luzez geratzea. ■■■

# Semaforoa gorri: gure aitak! (I)



## Xabier Amurizari elkarrizketa

**Egilea:** Miren Amuriza  
**Argitaratzailea:** Jakin  
**Argitaratze urtea:** 2020  
**Zenbakia:** 236  
**Generoa:** elkarrizketa



TERE IRASTORZA IDAZLEA

Miren Amurizak egin dio Xabier Amurizari, aitari, elkarrizketa eder bat, *Jakin*-ek 2020ko urtarrila-otsaileko zenbakian argitara eman duena.

**Neu**, izan, banaiz elkarrizketa-irakurlea, eta Xabier Amurizari egindako elkarrizketa gehiago ere irakurri, entzun eta ikusi izan dut. Baina zinez, alaba Mirenek egindakoa plazer handiz irakurri dut. Hurbiltzeko eta urruntzeko Miren Amurizak erabili dituen baliabideengatik, alde batetik, eta bereziki, esanetik eta pentsatutakotik aritzeko jorratu dituen bideengatik. Kamera baten atzean jarrita bezala, aitari urrunxeagotik begiratzerakoan, deskribapenean loratzen den gertutasun eta informazioa mailakatzea eta fokalizatzea lortu du; galderei zabal erantzuteko aukerez gain, aita-alaben arteko galde-erantzun batzuen bizkortasuna, zehaztasuna eta irmotasuna

ekarri dio pentsamenduaren joan-etorriari; eta amaitzeko, hainbat galdera-iruzkinen erakusten duten zintzotasunagatik ere elkarrizketa gogoangarria gertatu zait *Jakin*-en argitaratutako hau, eta ezin pasa esan gabe, hizkuntzaren dirdiragatik arras gozagarri.

**Xabier** Amurizaren lanak irakurri-zale izan ohi naiz. *Egin*-eko zutabeak irakurtzen hasi, Xabier Amurizaren bertsolaritza hiztegiarekin jarraitu, eta batez ere, Xabier Amurizaren itzulpenen (Lukrezio, Erich Fromm) eta bere nobeletako argitasuna iritsi egin zait, berriro, elkarrizketa honen bidez

## XABIER AMURIZAREN ITZULPENEN ETA BERE NOBELETAKO ARGIA IRITSI ZAIT, BERRIRO, ELKARRIZKETAREKIN

barruraino. Izan ere, gutxi batzuen dohaina den hizkuntzaren gordina eta giharra ere ondo jasoak izan dira elkarrizketan.

Baina egia esan, Xabier Amurizaren lanez luze-zabalean ekiteak alboratu egingo ninduke elkarrizketak eragindako burutapenei ekitea. Hain zuzen, aita eta seme-alaben arteko harremanez eta guraso eta seme-alaben arteko harremanek eragin dezaketen transzendentzia eta iraupen-sentipenak ere hunkitu egin bainau lan honetan. Eta halaxe, irakurri orduko, euskaraz neuzkan bi liburu berriro errepasatzeari ekin diot. Bata, Yon Etxaide Itharte nobelagile eta idazle handiak *Etxaide jauna* izenburupean 1971n idatzitako bizitza, inguru-giro eta lan gisara aurkeztu zuen biografia. Bestea, Ainara Maiak 2019an argitaratu zuen *Pepito, biziminenaren eta maiteminenaren txinparta*. ■■■

(Datorren astean jarraituko du).

## Goiena Klubeko maiatzeko sariak!



### Telebista LG 32"

Parte hartzeko sariaren izena: Telebista



#### PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus)

Whatsapp: KLUBA "sariaren izena"

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indararen dagean, (LPD 15/1999) lagazten arazera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Informatikoen Itzategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilera honen helburu bakarra da indararen daguan sostapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeke, bazeu zuzentzeko edo ezartzeko, beharrezko balidatuz: [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus)



#### Sarrerak

Arrikutz kobek bisitatzeko.

Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz



#### Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.

Parte hartzeko sariaren izena: Otarraa

[www.harremendenda.org](http://www.harremendenda.org)

Bidezko Merkataritzako produktuak

\*COVID-19a dela eta, alarma egoera pasatu ostean disfrutatu ahal izango da sariez



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailaz gozatzeko...



2020ko bazkidetza: 56€

Deitur: 943 25 05 05

[kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus)

goienakluba



# Martin Carreraren ondarea

DEBAGOIENeko HAINBAT ERAIKIN ETA LAN

---

## MIREIA BIKUÑA MADRID

ARGAZKIAK: M.B.M. ETA WIKIPEDIA

---

Batzuk eraikinak dira. Beste batzuk, eraikin baten elementuak. Beste hainbat, apaingarriak edo osagarriak egiteko zirriborroak eta marrazkiak. Horien guztien atzean dago jaiotzez beasaindarra zen Manuel Martin Carrera arkitektoa. Oñatiko eta Arrasateko udaletxeak, Errege Seminarioko armarría, Eskoriatzako eta Aretxabaletako parrokiak... Oso aberatsa de Martin Carrerak bailaran utzitako ondarea. Asko, gainera, barroko eta rokoko estiloko eraikinak dira.

### Marrazketatik arkitekturara

Bere aita, Pedro Carrera, arkitektoa zen, eta haren pausoak jarraitzeko erabakia hartu zuen. Marrazketarekin hasi zen txikitan. Biluziak eta estanpen kopiak egiten. Baina berehala hasi zen arkitekturari lotutakoak egiten. Ordurako, San Fernando akademian ziharduena eskolak hartzen.

Ikasketak bukatu zituenean, etxera, Beasainera, itzuli zen eta aitarekin hasi zen lanean. 1756an hasi zituen Arrasateko udaletxea egiteko lanak. Barrokoaren ezaugarri nagusiak ipini zituen fatxadan: hierarkiazko sistema erabiliz, bost zatitan banatu zuen pilastrak erabiliz. Eskema oso

antzekoa erabili zuen Oñatiko udaletxea egiteko. Kasu horretan, fatxada hirutan banatu zuen. Azken horretan, areto nagusiko egurrezko eserlekuak ere berak diseinatu eta egin zituen.

### Kanpandorreak

1768an aita hil zenean, berak hartu zuen tailerraren ardura, eta baita aitak egin barik utziko lanen amaiera ere. Orduan hasi zen bere ukitua ematen eraikinei. Barrokoa ahaztu barik, elementu neoklasikoak erabiltzen hasi zen. Bereziki, elizendako kanpandorreak egiten espezializatu zen. Horren adibide dira Oñatiko, Eskoriatzako eta Aretxabaletako parrokiak kanpandorreak. Hirurek dituzte antzeko egiturak, baina hirurak dira, era berean, ezberdinak.


### Armarriak

Aita hil zitzaion urte berean, Bergarako Errege Seminarioako armarría diseinatu eta egin zuen. Aurretik, Arrasateko udaletxearen fatxadan dagoena ere egin zuen. Gainera, Oñatiko parrokiako Pietatearen kaperaren sarreran dagoen burdinazko arku ere diseinatu zuen.

Irakasle lanak ere egin zituen, gazteei arkitekturaren sekretuak erakusteko asmoz. 1804an hil zen, Tolosan. ■■■



Aretxabaletako parroikia.



Oñatiko osoko bilkuren aretoa.



Pietatearen kaperako arku.



Oñatiko parrokiako kanpandorra.



Arrasateko armarrria.



Arrasateko udaletxea.



Eskoriatzako parrokiako kanpandorra.



# Pantailetatik



IRATI BARRENA BOLINAGA

**2**019ko maiatzaren erdialdean, IOSondea enpresak argitaratu zuen ikerketa baten arabera, urte erdi pasatzen dugu pantaila bati begira. 167 egun, hain zuzen. Konfinamendua hasi genuenetik zenbaki honek gorantz egingo zuen, ziur asko.

**Egunean** zehar egiten ditugun jarduera guztiak dute zerikusia pantailekin. Jaikitzen garenetik hasita, lanarekin edo ikasketekin jarraituz. Kirola egiteko, informatzeko, aisialdirako... Baina konturatzen al gara zenbat denbora pasatzen dugun berrori begira?

**Ez da erraza.** Ez da erraza kristal zati baten menpe egotea. Baina, dirudienez, ez dugu beste aukerarik. Ala bai?

**Gertatu** izan zait erosketaren bat egitera joatean, dendara sartzeko ilara luze batekin aurkitzea. Nori ez? Okindegian, azokarako sarreran... Momentu horretan kasik automatikoki ateratzen zaidan lehenengo gauza mugikorra ateratzea izan ohi da. Baina, zer dut buruan? Goizetik jaikitzeaz bat ikusten dudan lehen gauza da, ondoren unibertsitateko klaseak ere ordenagailutik jasotzen ditut, kirola egin dudanean ere pantailaren bitartez izan da, eta ikusten ari naizen telesail guztiak ere bertatik ikusi ditut.



PIXABAY/PMK

Kalera behin irteteko aukera izanda, zergatik sentitzen dut behar hori? Umeak kanpora ateratzeko duten ordu horrekin ere, ikusi ditut semea edo alaba jolasten utzi eta banku batean eserita mugikorrari begira gelditzen diren guraso asko ere.

**Denda** barrura sartzean, eta ordaintzera joatean, berriz, beste pantaila batekin egiten dugu topo. Baina hau guztiz desberdina da. Gardena den pantaila honek dendariaren eta zure artean dagoen distantzia areagotzeko asmoa du. Aurretik aipatu ditugun guztiz kontrakoa. Batzuek, gertu dagoena banandu. Besteek, urruti duguna hurbildu.

**EZ DA ERRAZA KRISTAL ZATI BATEN MENPE EGOTEA, BAINA, DIRUDIENEZ, EZ DUGU BESTE AUKERARIK**

**Baina** momentu bereziak ere ekarri dizkigute pantaila askok. Ikusi besterik ez dugu ospitaleetatik edo zahar-etxeetatik iristen zaizkigun irudiak. ZIU hainbat egun pasa ondoren, pazienteak familiarekin harremanetan jartzeko tresna gisa erabiltzen dituzte teknologia berriak, fisikoki bisitatzea posible ez delako. Berdina gertatzen ari da zaharren egoitzetan. Honen harira, hainbat adituk diote horrelako ekintzak gure ongizate emozionalerako ezinbestekoak direla.

**Baina**, nolakoak bihurtuko dira harremanak hau bukatzean? Hainbeste aldiz esan eta entzun dugu gure lehengo bizitzara itzultzeko desiratzen gaudela. Baina, 50 egun baino gehiagoz gure ohiturak guztiz aldatuta, zer-nolako dependentzia sortuko digu honek guztiak? ■

---

 TESTUA: ITZIAR LARRAÑAGA
 

---



### Oppo Find X2

*Mugikor adimenduna. Oppo. 999 euro.*

6,7 hazbeteko AMOLED pantaila dauka eta begiak gutxiago nekatu daitezten 120 Hz-ko freskatze-tasa eskaintzen du. Pantailak aurrealdeko kamerarentzako zulo bat du, 32 MP-ko sensore batekin. Gainera, Qualcomm Snapdragon 865 prozesadorea, 5G konektibitatea, wifi 6 eta NFC konexioa dakartza.

### MacBook Pro 13"

*Ordenagailu eramangarria. Apple. 1.499 euro.*

MacBook Pro gailu ezagunaren 13 hazbeteko bertsioa jarri du salgai Applek. Intel Core Gen10 prozesadorea dakar, 256 GB-ko oinarritzko memoriarekin. Nahi izanez gero, 4 terabyte-raino handitu daiteke. RAM memoria 8 GB-koa da eta hori 32 GB-ra arte handitu daiteke. Bestalde, *Magic Keyboard* teklatu aurreratua dakar.

### SPC Conforto DC

*Haizagailu adimenduna. SPC. 199,90 euro.*

Argia eta aire hotza uztartzen ditu Conforto DC gailuak. Sei abiadura eskaintzen ditu eta 40 wateko motorra dauka. Urrutiko aginte batekin, mugikorrarekin zein *Google Assistant* edo *Alexa*-rekin kontrolatu daiteke. Gainera, SPC markaren gainontzeko *Smart Home* gailuekin ere konektatu daiteke.

# Kreazio- gorputza

**EGILEA:** TXATXILIPURDI ELKARTEA

**ARGAZKIAK:** TXATXILIPURDI ELKARTEA

**ARGAZKETAN:** MALI, XUNE ETA HAITZ JUARISTI

Etxean denbora igarotzea tokatu zaigu azken egun hauetan. Etxeko materialak erabiliz egiteko proposamena dugu zerbaki honetarako. Etxeko materialekin gorputz bat osatzea da ideia. Etxean duzuen edozer gauzak balio dezake.

## Materiala

- Paper handi bat.
- Errotuladore bat.
- Guraizeak.
- Barazkiak: patatak, azenarioak...
- Frutak: sagarrak, udareak...
- Jateko tresnak: koilarak, sardexkak...
- Bestelakoak: CDak, kortxoak, harriak, oskolak... Edozerk balio du.

## Nola egin

- 1. Gorputza marraztu** Pertsona bat paper handi baten gainean etzan behar da, eta gainerakoek haren gorputzaren silueta markatu behar dute errotuladorearekin.
- 2. Papera moztu** Behin gorputz osoaren silueta markatu dugunean, moztu egingo dugu papera. Kontuz! Atal batzuk errazak dira, baina beste batzuk ez hainbeste.
- 3. Bete gorputza** Etxean bildutako materialarekin bete behar da gorputza. Ideia da osorik estaltzea.
- 4. Gorputz atalak izendatu** Guk gorputzeko atalak papertxoetan idatzi ditugu eta gorputzean kokatu ditugu.




MATERIALA




1



2



3



4



# Oharra

Koronabirusa dela eta Debagoieneko Ospitaleak erabaki du galaraztea hedabideetatik ospitalera joatea ume jaioberriei argazkiak ateratzera, prebentzio neurri gisa.

Ondorioz, neurri horrek indarrean jarraitzen duen bitartean, Goiena ezingo da ospitalera joan argazkiak ateratzera.

Dena den, Goienak segitu nahiko luke eskualdeko ume jaioberrien argazkiak ateratzen PUNTUA aldizkarian.

Hori horrela izanik, nahi baduzu PUNTUA aldizkarian agertu, zera eskatu nahi dizugu:

- Umearen argazki horizontala ateratzea umea bakarrik edo norbaitekin.
- Honako informazio hau jasotzea:
  - Jaioberriaren izen-abizenak.
  - Gurasoen izenak.
  - Umea noiz jaio den.
  - Zenbat pisatu duen.
  - Nongoa den.
  - Argazkian norbaitekin ageri bada, norekin ageri den.

**Bidali Goienara hori guztia bide hauetako bat erabilita:**



Posta elektronikoa:  
*berriak@goiena.eus*



Whatsapp /  
Telegram:  
688 69 00 07







*liburuxkak  
jai egitarauak  
pegatinak  
kartelak  
txartelak  
etiketak  
errifak*



**EGUZZKIGRAF**  
inprimategia

Aretxabaletako Industrialdea F-O4  
943 791 844 • [info@eguzkigraf.com](mailto:info@eguzkigraf.com)

